



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

**URRITASUN FISIKOEN AZTERKETA  
LEHEN HEZKUNTZAKO GORPUTZ  
HEZKUNTZAN**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

Egilea: Uriarte Vuelta, Nahia

Irakaslea: Ros Martinez de Lahidalga, Iker

**2020/2021**

## **LABURPENA**

Gradu Amaierako Lan honen bitartez, Gorputz Hezkuntzako testuingurua hartuta, Lehen Hezkuntzako Gorputz Hezkuntza klaseetan ematen diren gatazka motorrak aztertuko ditut. Hain zuzen ere umeek pairatzen dituztenak. Marko teorikoan zenbait kontzeptu argitu ondoren, hemen, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi dugun egoerari erreparatuko diogu. Euskal curriculuma egoera honen inguruan esaten duena ere aztertuko dut. Baita irakasleek honen inguruan duten iritzia jasotzen saiatuko naiz. Horretarako 9 irakaslek betetako inkesta baten erantzunak aztertuko ditut. Jarraian, proposamen didaktiko bat egingo dut. Helburua gatazka motor konkretu bati aurre egiteko Unitate Didaktiko bat aurkeztea izango da. Azkenik, lan guztia zehar landutako informazioa eta inkestaren emaitzak kontuan hartuta, hausnarketa propioa egingo dut.

**Hitz-gakoak:** Gatazka motorrak, Gorputz Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Eskola Inklusiboa, Urritasuna

## **RESUMEN**

Mediante este Trabajo de Fin de Grado y teniendo en cuenta el contexto de la Educación Física, voy a analizar los problemas motores que sufren los niños y niñas en las clases de Educación Física en la Educación Primaria. Después de aclarar algunos conceptos en el marco teórico, también voy a repasar la situación actual del País Vasco respecto a esta situación. También analizaré cómo aborda esta problemática el currículum del País Vasco. Además, trataré de recoger la opinión que tienen los profesores y las profesoras respecto a este tema. Para ello, analizaré las respuestas de una encuesta a la que han respondido 9 profesores y profesoras. A continuación, haré una propuesta didáctica. La Unidad Didáctica tiene como objetivo hacer frente a una “*discapacidad*” concreta. Por último, teniendo en cuenta la información que se ha trabajado durante el trabajo y los resultados de la encuesta, haré una reflexión propia.

**Palabras clave:** Problemas motores, Educación Física, Educación Primaria, Escuela Inclusiva, Discapacidad

## **SUMMARY**

Through this Final Project, and taking into account the context of Physical Education, I will analyse the motor problems that children suffer in Physical Education

classes in Primary Education. After clarifying some concepts in the theoretical framework, I am also going to review the current situation in the Basque Country with regard to this situation. I will also analyse how the curriculum in the Basque Country deals with this topic. I am also going to include information about teacher's opinion about this topic. To do this, I will analyse the responses to a survey to which 9 teachers have answered. After that, I will make a didactic proposal. The Didactic Unit aims to deal with a specific "disability". Finally, taking into account the information that has been worked on during the work and the results of the survey, I will make my own reflection.

***Key words:*** Psychomotor problem, Physical Education, Primary Education, Inclusive School, Handicap

# AURKIBIDEA

<b>SARRERA</b> .....	5
<b>JUSTIFIKAZIOA</b> .....	7
<b>HELBURUAK</b> .....	8
<b>1. MARKO TEORIKOA</b> .....	9
<b>1.1 Urritasun kontzeptuaren bilakaera historikoa</b> .....	9
<b>1.2 Gatazka motorraren kontzeptua</b> .....	12
<b>1.3 Gatazka motor motak</b> .....	14
<b>1.4 Eskola inklusiboa Euskal Herrian</b> .....	20
<b>1.5 Curriculumarekiko lotura</b> .....	20
<b>1.6 Gorputz Hezkuntza: inklusioa lantzeko bidea</b> .....	21
<b>2. IRAKASLEEI EGINDAKO INKESTA</b> .....	23
<b>2.1 Prozedura</b> .....	23
<b>2.2 Cordoban egindako inkesta</b> .....	23
<b>2.3 Araban egindako inkesta</b> .....	24
<b>2.4 Emaitzak eta ondorioak</b> .....	24
<b>3. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA</b> .....	28
<b>4. HAUSNARKETA</b> .....	29
<b>5. BIBLIOGRAFIA</b> .....	31
<b>6. ERANSKINAK</b> .....	34
<b>1. Eranskina: Glosarioa</b> .....	34
<b>2. Eranskina: Inkestaren galderak</b> .....	36
<b>3. Eranskina: Inkestaren erantzunak</b> .....	39
<b>4. Eranskina: Unitate Didaktikoa</b> .....	53

## **SARRERA**

Hezkuntza arloak etengabe aldaketak jasaten aritu da. Kasu askotan onuragarriak izan dira, baina beste batzuetan ez. Urritasunen kasuan, azken urteotan era positibo batean aldatu dira, adibidez: definizioan, deituretan eta baita gizartearen ikuspegian ere. Hala ere, oraindik lan asko egiteko dago ikertzeko eta hobetzeko. Hezkuntzari buruz edo, zehazki, eskola arruntari buruz hitz egiten dugunean, pentsatu behar genuke hezkuntza hori nahikoa prestatuta dagoen urritasuna duten ikasleak arlo guztietan sartzeko. Urritasuna duten pertsonak zentro arruntetan sartuta daude, eta, horregatik, proposamen inklusiboak egin behar dira, hezkuntza-testuinguru batean ahalik eta garapen onena izan dezaten; halaber, Gorputz Hezkuntzaren irakasgaiak ezaugarri eta gaitasun inklusiboak ditu.

Gradu Amaierako Lan honen bitartez, Gorputz Hezkuntzako ikasgaien gatazka motorrak ulertzeko eta hauei aurre egiteko proposamen didaktiko bat sortu da. Lan honen lehenengo sarrera justifikazioa izango da eta horren ondoren lortu nahi diren helburuak definituko dira. Atal horien ondoren, lehenengo puntuari ekingo diogu, hemen marko teorikoa sartzen da. Marko teorikoa hiru atal nagusitan zatitzen da; lehenengoa, urritasun kontzeptuaren bilakaera historikoa da. Hemen, “urritasun” hitzaren esanahia denborarekin nola aldatu den ikusiko dugu. Bigarrena atalean gatazka motorra definitzeko dauden ikuspegi desberdinak azalduko ditut. Azkenik, gatazka motor mota desberdinak eta haien sailkapena aztertuko dugu. Euskal Autonomia Erkidegoan lortutako datuetan oinarrituta eta Gorputz Hezkuntza ikasgaia erdigunetzat hartuz, ikasgaien agertzen diren alde onak eta baita hutsuneak aztertuko ditugu.

Bigarren puntuan irakasleen gai honekiko pentsamendu eta iritzia aztertuko dugu. Urritasuna duten umeekin lan egiten duten profesionalen ikuspuntua garrantzitsua iruditzen zait dagoen hezkuntza-sistemaren gabeziak adierazteko eta hobetzeko proposamenak egiteko. Lanaren hirugarren puntuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumetik abiatuz, nik sortutako proposamen didaktiko bat aurkeztuko da, hau lanaren atal nagusia izango da. Horrela erakusten da arlo hau ikasleen gizarteratzea eragiten duen tresna dela, horretara egokitutako programekin eta hezkuntzaren eta gizartearen ingurunean kontzientziazioa eta normalizazioa sustatzeko jardurekin.

Helburu nagusia Lehen Hezkuntzan eman daitezkeen gatazka motorrak ezagutzea eta horien inguruan hausnartzea da. Zailtasunak izan ditzaketen ikasleei lagundu ahal izateko, lehendabizi zein den arazoa ulertu behar dugu.

## JUSTIFIKAZIOA

Azken urteetan, nabariak izan dira Hezkuntza Sisteman egin diren hobekuntzak, nahiz eta oraindik lan asko falta den. Eboluzio hau gizartean eman diren aurre pausuen eragina dela eta izan daiteke. Bat aldatuz gero, bestea ere aldatuko dela pentsatzen dut. Bi arrazoi nagusi dauzkat lan hau aurrera eramateko.

Alde batetik, Lehen Hezkuntza Hiru eleduneko Graduan Gorputz Hezkuntzako minorra egin dudanez, zentzuzkoa da honen inguruko gai bat aukeratzea. Bestalde, gatazka motorrekiko jakinmina nire bigarren praktketan piztu zen. Gradu osoan zehar egindako praktketan, bai ikastolan eta bai ikastetxeetan egoteko eta errealitate desberdinak ezagutzeko aukera izan dut. Bigarren praktika haietan, paralisi partziala duen neska batekin topatu nintzen eta begi bistan zegoen zailtasun motorrak zituela.

Azken praktketan Gorputz Hezkuntzako irakaslearekin bakarrik egon nintzen, hortaz, maila guztietako ikasleak ezagutzeko aukera izan dut, maila bakoitzean ematen diren aldaketak antzemateko eta gela arruntetik kanpo nola erlazionatzen diren eta baita nola jokatzten duten ikusteko. Beraz, aurreko guztia kontuan hartuta, klasean, baina batez ere Gorputz Hezkuntzan, inklusioa nola landu daitekeen ikertzen hasi nahi nuen.

Gaur egun inklusiorako bidea ez da erraza eta aurrerapenak egin diren arren, oraindik erronka izugarria suposatzen du hezkuntza sistemarentzat. Horretaz gain, Gorputz Hezkuntzari dagokion garrantzia eman behar zaio, umeak etorkizuneko hiritarrak izango dira, eta ikasgai honetan hiritar onak izateko balore eta edukiak lantzen dira. Ez dira gela arruntetan bezala lantzen, baizik eta modu motibagarri eta ludiko batean, baina horrek ez du esan nahi balio gutxiago duenik. Aldi berean eskola da guztiek ibili behar duten bide bat, horregatik hain zuzen ere, baloreak transmititzeko leku gakoa da. Hau, abiapuntutzat hartu dezakegu desgaitasunen bat duten pertsonen pairatzen duten gutxiespena eta haiei buruzko ikuspegi okerra ezabatzeke.

Inklusioa beharrezkoa da ikasle guztien premiak ahalik eta hoberen asetzeko, baina bereziki Hezkuntza Premia Bereziak (HPB) dituzten ikasleak ahalik eta hoberen garatzeko. Horregatik, Gorputz Hezkuntzaren laguntzaz inklusioa modu ludiko batean landu behar dira. Euskal Autonomi Erkidegoko (EAEko) Oinarrizko Hezkuntza curriculumean (236/2015 DEKRETUA, 2016ko urtarrilaren 15a) esaten duen moduan, jolasak eta kirolak dira giro hezitzaile inklusiboa lortzeko tresna nagusia.

## HELBURUAK

Aurretik aipatu den bezala, Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusia bada Gorputz Hezkuntzaren bidez, ikasleek izan ditzaketen gatazka motorrak erdigunetzat hartuz, ikasle hauen egoera ulertzeko, aztertze eta laguntza emateko proposamen didaktiko bat aurkeztea.

Lanaren helburu espezifikoak honako hauek dira:

- Gatazka motorren inguruko kontzeptuetan sakontzea. Informazioaz gain, kontzeptu mapak ere jarriko ditut. Modu honetan aurretik aipatutako informazio guztia laburtuta egongo da.
- Gai honen inguruko irakasleen iritzia eta prestakuntza ezagutzea. Helburu hau lortzeko, jada eginda dagoen inkesta bat eredutzat hartuz eta zenbait aldaketa eginez, Arabako ikastola eta ikastetxe desberdinetara bidali ditut. Emaitzak grafiko batzuen bitartez islatuko dira. Horiekin batera, emaitzetan oinarrituta, arlo bakoitzeko ondorioak jarriko ditut.
- Gorputz Hezkuntzako proposamen didaktiko bat sortzea, non monopolejia duen ikasle bati *Ultimate frisbee*-ko unitate didaktiko batean zein motatako egokitzapenak egingo nizkioken zehaztuz.

Behin helburuak ezagututa, lanaren marko teorikoa aurkeztuko da. Aipatu dudan moduan, bertan gatazka motorren inguruko kontzeptu ezberdinak azaltzen saiatuko naiz, baita denboran izan duen bilakaera ere. Horretaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoan daukagun egoerari ere erreparatuko diogu.



## 1. MARKO TEORIKOA

Oinarri teorikoak urritasunari etea haren bilakaerari buruzko ibilbidea emango digu. Horretaz gain, urritasun motak orokorrean ere azalduko ditut, geroago gure interesa pizten duen motaraino helduko gara, urritasun motorea hain zuzen. Gorputz Hezkuntza arlo inklusibo gisa garrantzi handia hartuko du atal honetan.

### 1.1 Urritasun kontzeptuaren bilakaera historikoa

Ibilbide bat egingo da historian zehar desgaitasunen bat zuten pertsonen buruz izan den ikuspegiari buruz, bai eta termino horren bilakaerari buruz ere, lan hori egiten ari garen bitartean desgaitasunari buruz hitz egiten ari garelako, baina hitz hori beti izan da aztergai. Desgaitasunaren kontzeptua aldatuz joan da historian zehar, pertsona horiek sailkatzeko eta kontzeptu estandarizatu batzuk bilatzeko asmoa dela eta.

Beraz, desgaitasun terminoa ulertzeko, ezinbestekoa da desgaitasunen bat duten pertsonen buruz izan diren pertzepzio historikoak ezagutzea; horrela, hiru paradigmak eta horiek txertatzen dituzten ereduak ezagutu eta aztertuko ditugu. Horien artean hauek aurki ditzakegu: a) bazterkeriaren paradigmak eredu eugenesikoa eta marjinazioaren eredu barne hartzen ditu, b) eredu medikoa eta eredu biopsikosozialaren sorrera barne hartzen dituen errehabilitazioaren paradigma, eta azkenik c) autonomia pertsonalaren paradigma, gizarte-eredua eta dibertsitate funtzionalarena barne hartzen dituen (Díaz Velázquez, 2017).

**A) Presentziaren paradigma:** Eredu eugenesikoa eta marjinazioaren eredu: Erdi Aroan, desgaitasunaren jatorria gertakari erlijiosoen egozten zitzaien, hau da, bekatua egiteagatik zigorraren sintoma zen desgaitasun bat izatea. Gainera, uste zen desgaitasuna zuten pertsonak ez zirela beharrezkoak, gizarteari ezin ziotelako ekarpenik egin, eta, beraz, onena haiek kentzea zela uste zen (Palacios Rizzo & Bariffi, 2014).

Eredu eugenesikoaren arabera, perfekzio fisiko eta intelektuala lortzen ez zuten pertsonak mehatxu ziren gizartearentzat (Díaz Velázquez, 2017). Bestalde, bazterketaren erudian desgaitasuna pobreziaekin eta karitatearekin lotzen zen, nahiz eta batzuetan

deabruarekin ere lotzen ziren (Palacios Rizzo, & Bariffi, 2014).

**B) Paradigma errehabilitatzailea.** Eredu medikoa eta eredu biopsikosozialaren sorrera: Paradigma hau Lehen Mundu Gerran agertzen da, gerrak pertsona desgaitu asko sortzen dituen, desgaitasunari buruzko pertzepzioa aldatzen hasi da, hau da, kolektibo horri onura ekonomiko, hezitzaile eta sozial jakin batzuk ematen hasi zaio, gerra egindako lana eskertzeko (Palacios Rizzo & Bariffi, 2014). Horrela, aurreko pertzepzioak arbuatzen dira, eta desgaitasunen bat duten pertsonak gizarteari ekarpenak egiten dizkiotela pentsatzen hasten da, hori edukitzearen arrazoia deabruaren zigorra dela ezeztatuz. Hala ere, desgaitasuna pertsonak duen arazotzat hartzen da, eta, beraz, errehabilitazioaren bidez tratatu behar da. Eredu medikoa errehabilitazioaren paradigmaren barruan dagoenez, errehabilitazioak desgaitasuna desagerrarazi nahi du tratamenduaren bidez, egoera normalizatzeko helburuarekin (Díaz Velázquez, 2017).

Era berean, paradigma horren amaieran, eredu biopsikosoziala agertzen da, eta harreman handia du eredu medikoarekin. Kasu honetan, desgaitasuna definitzeko, mugei, urritasunei eta murrizketei egiten diete erreferentzia, eta, ondorioz, norbanakoa erruduntzat jotzen da, ezaugarri batzuk edo beste izateagatik.


**C) Autonomia pertsonalaren paradigma,** gizarte-eredua eta dibertsitate funtzionalaren eredua: Ameriketako Estatu Batuetan eta Ingalaterran jaio zen XX. mendean, 60ko hamarkadaren amaieran eta 70eko hamarkadaren hasieran, desgaitasuna ez dela arazo bat nabarmentzen du, eta horren erantzukizuna ez zaiela egotzi behar pairatzen duten pertsonari; aitzitik, ez da pertsonak birgaitu behar dena, ingurunea baizik, horrek eragiten baititu mendekotasun-egoerak (Díaz 2017). Paradigma honetan gizarte-eredua agertzen da, aurreko guztiari uko egiten diona eta desgaitasunaren kausen gaineko errua gizarteari egozten diona; izan ere, desgaitasun hori da gizabanakoari nolabaiteko mugak jartzen dizkiona, hau da, gizartean konponbidea bilatzen duena, guztion beharrak asetzeaz arduratzen den aldetik, inklusioa eta onarpena bultzatzeko helburuarekin (Palacios & Romañach, 2006).

Hiru paradigma horiek bakoitzaren ereduarekin aztertuta, ondorioztatzen dugu historian zehar desgaitasunari buruzko aurrerapenek bilakaera ona izan dutela beti. Hala ere, horrek ez du esan nahi aldaketa horiek zuzenak izan direnik, aurrerakoiak baizik,

berdintasunaren, inklusioaren eta giza eskubideen arora bideratuak. Hainbat garaitako paradigmataz gain, desgaitasunaren pertzepzioa eta terminoa etengabe eraldatu izan dira; izan ere, 1980an, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) kontzeptu horren definizio bat ematea erabaki zuen. Argitalpen horretan, desgaitasunak inguruneak zuen eragina aipatu zuen, eta hiru kontzeptualizazioarekin zehaztu zuen, nahiz eta elkarrekin lotuta egon: urritasuna, minusbalotasuna eta desgaitasuna (Melguizo, 2014). Urritasunaren definizioan, pertsonari berezitasun jakin batzuk zituela adierazten zuen, alderdi psikologiko, fisiologiko edo anatomikoetan eragina izan zezaketenak. Desgaitasunari dagokionez, akats bat izateari egozten zitzaion, pertsona bati jarduera bat egitea eragozten edo mugatzen zuen puntu erabakigarri gisa. Azkenik, honela definitu zuen elbarritasuna: normaltzat jotzen ziren funtzioak betetzeko gaitasun eza (Palacios Rizzo & Bariffi 2014). Karaktere horiek eboluzionatuz joan dira denborak aurrera egin ahala, baina oraindik asko daukagu deskubritzeko, aurrera egiteko eta ikertzeko. Beraz, zenbait eremutan inklusioaren ordeztasunarekin areagotu denez, inplikaturako kolektiboak inoiz ez du atzera egin berdintasunaren eta giza eskubideen aldeko borrokan.

Gaur egun, inklusioan oinarritutako termino berri bat sustatu da, desgaitasun terminoaren ordeztasunarekin funtzionalarena hain zuzen ere. Honen helburua da diskriminazioa eragiten duten konnotazio negatibo guztiak ezabatzea, desgaitasun terminoaren kasuan bezala. Adibide gisa honako konparazio hau aipatzen da: miopia izateak ikuspegi akastuna izatea esan nahi du; beraz, aztertutakoaren arabera, desgaitasunaz ari gara, baina horrek ez du esan nahi pertsona desgaitua izatea, bere funtzioa betetzen uzten dioten betaurrekoak eta lentillak daudelako. Hala ere, gurpila-aulkietan mugitzen diren pertsonen bai, desgaitasunaren bat duten pertsonatzat jotzen, nahiz eta gurpildun-aulkia behar ez duten pertsonak bezala lekualda daitezkeen. Egoera guztiz kontraesankorrek dira, eta desgaitasun hitza barne hartzen duen diskriminaziora garamatzate (Vázquez Ferreira, 2010).

Gogoan izan behar dugu une honetan izen hori sustatzen hasi dela, eta, beraz, izen hori ezartzeak prozesu geldoa dela eta azterketa zehatza eskatzen duela, gure hizkuntzan aldaketa soziala eta linguistikoa dakarren edozein erreformak eskatzen duen moduan.



## 1.2 Gatazka motorraren kontzeptua

Hasteko, modu orokorrean gatazka edo ezgaitasun hitza definituko dut, geroago gatazka motorra hobeto azaldu eta ulertu ahal izateko.

Osasunaren Mundu Elkartearen (OME) arabera, desgaitasuna urritasunak barne hartzen dituen termino orokorra da, jarduerak gauzatzeko mugak eta parte-hartzearen murrizketak biltzen ditu. Urritasun bat gorputz-egitura edo -funtzio bati eragiten dion arazoa da; ekintzak edo zereginak gauzatzeko zailtasuna da, eta parte-hartzearen murrizketak bizi-egoeretan parte hartzeko arazoetan ondorioztatzen dira.

Olmedok (2008) adierazten duen bezala, desgaitasun terminoetan soilik oinarritutako desgaitasunaren kontzeptiotik, oso bestelako batera pasatu gara: funtsezkoena ikasleek gizarte- eta eskola-ingurune jakin batean dituzten hezkuntza-premiak dira. Hau da, defizitaren eredutik gizarte- eta hezkuntza-eredura igaro gara. Horrela, lehen garrantzitsuena arazoaren jatorria edo ezaugarriak ahalik eta zehatzen deskribatzea zen, gabezia horren diagnostikoarekin bat zetorren tratamendua ezartzeko.

Gaur egun, kontua ez da urritasuna ahaztea, baizik eta azpimarratzea garrantzitsuena ez dela ikaslea sailkapen batean kokatzea, baizik eta haren beharren benetako azterketa bat egitea, behin horiek identifikatuta, irtenbide egokienak bilatzeko eta, horrela, haren

gaitasunak ahalik eta gehien indartzeko. Esku-hartzearen ikuspegitik, oso garrantzitsua da jakitea zeintzuk diren ikaslearen indarguneak eta ahulguneak; izan ere, modu horretan soilik antzeman ahal izango ditugu haren beharrak eta horien arabera jardun. Gizaki guztiak bakarrak eta errepikaezinak gara, eta, beraz, bi ikaslek desgaitasun bera izateak ez du esan nahi tratamendu bera jaso behar dutenik.

Pertsonan jarri behar dugu arreta, eta ez haren urritasunean. Hezkuntzan ez dago errezetarik, lanean ari garen pertsonari begiratu behar diogu eta, hortik abiatuta, zer egin dezakegun baloratu behar dugu, hobetzen laguntzeko (Lizasoáin y Peralta, 2004).


Bestalde, desgaitasunaren kontzepzioari dagokionez, badirudi defizitaren eredu aipatzen ari naizen gizarte- eta hezkuntza-eredura igarotzea aurrerapen handia dela; izan ere, esan bezala, kontua ez da pertsona sailkapen baten edo bestearen barruan etiketatzea, baizik eta harago joatea, haren beharrak ikusten saiatuz eta horiei ahalik eta ondoen erantzuten saiatuz. Hala ere, oraindik bide luzea dago egiteko, jende guztia ez baitago urritasunarekin sentibilizatuta, eta oraindik jende askok pertsona horiek lastima eta mespretxuz tratatzen ditu, haien mugak soilik ikusita eta uste dutelako ez dutela indargunerik (Grau, 2005).

Mugitzeko urritasun terminoa gaitasunaren aldaketa bati dagokio. Desplazamendu eta/edo manipulazio-funtzioak, aho-fonaziokoak edo arnasketakoak maila desberdinean eragiten dituen mugimendutik, pertsona bere garapen pertsonal eta sozialean mugatzen duena (Pérez y Garaigordobil, 2007, 344. or.).

Del Barco (2009) dio mugitzeko desgaitasuna duten ikasleek "Mugimendu batzuk egiteko zailtasunak, nerbio-sistema tartean dela, bera arduratzen baita mugimendua sortzeaz eta arautzeaz ". Egileak, bere definizioan, sisteman lesio bat dagoela azpimarratzen du nerbio sistema zentrala, lokomozio-aparatuaren balizko afekzioa aipatu gabe. Hala ere, definizio ezberdinetan ikusi dugun bezala, egile gehienak bat datoz asaldura nerbio-sistema zentrolean zein lokomozio-aparatuan gerta daitekeela esatean.

Azkenik, sailkapenaren atalera igaro baino lehen, mugimen urritasunaren kontzeptuaren laburpen bat egingo dut, aipatutako egileek nabarmendu dituzten ideia garrantzitsuenak jasoz: mugimen urritasuna mugatze edo gaitasun-gabezia gisa definitzen da. Aldaketa iragankor edo iraunkor baten ondorio da (lesioagatik edo gaixotasunagatik) nerbio-sistema zentrolean edo lokomozio-aparatuan (hezurrak, artikulazioak edo giharrak), pairatzen duen pertsona desabantaila-egoeran jartzen duena jarduera asko

egitea mugatzen edo ezgaitzen duelako, bere berdinekin konparatuz. Nahasmendu horrek mugak sor ditzake jarreran, koordinazioan, komunikazioan, manipulazioan, desplazamenduan eta aho-fonoen eta/edo arnasketen funtzioetan.



### 1.3 Gatazka motor motak

Peraltak (2011) adierazten duen bezala, mugitzeko desgaitasun terminoaren barruan aldaketa multzo heterogeneoa sartzen da, hainbat forma eta mailatan adieraziak. Era horietako bakoitzak mugimendu zehatz, arin eta koordinatuak egiteko gaitasunean eragiten du, maila aldakorrean.

Eragin-maila hainbat aldagairen araberakoa da, hala nola, lesionatutako eremuaren hedadura, kokapena, jatorria eta garrantzi funtzionala. Horregatik, zaila da patologia bakoitzaren sintoma eta adierazpen bereizgarriak orokortzea. Gainera, ez dugu garrantzitsuena ahaztu behar, ikasle bakoitza pertsona indibidual gisa ulertzea dela, gaitasun jakin batzuk dituen eta, aldi berean, inguruneak baldintzatzen duena. Lehen esan dugun bezala, lehenago begiratu behar diogu pertsonari bere desgaitasunari baino; izan ere, desgaitasun hori faktore indibidualen eta ingurumen-faktoreen arteko interakzioaren emaitza da, eta, beraz, kasu bakoitza bakarra izango da. Horregatik

garrantzitsua da pertsona bakoitzaren beharrak hautematea eta ez soilik sailkapen batean edo bestean etiketatzea.

Hala ere, batzuetan, sailkapenek pertsona horien bizi-kalitatea hobetzeko ikerketa sustatzen laguntzen dute, eta laguntza batzuk jaso ahal izateko balio dute. Horregatik, jarraian, arlo honetan garrantzitsuak diren hainbat egilek proposatutako sailkapenak erakutsiko ditut.

Perezek eta Garaigordobilek (2007) gatazka motorren sailkapena aurkeztu dute, hainbat irizpide erabiliz. Alde batetik, aldaketa motorraren topografia edo, Olmedok dioen bezala (2008), kaltetutako eremuaren arabera, honako hauek daude:

- Monoplejia: gorputzeko atal bati eragiten dio, besoari edo hankari.
- Hemiplejia: gorputzaren alde simetrikoki bati eragiten dio, eskuinekoa edo ezkerrekoa izan daiteke.
- Paraplejia: beheko bi gorputz-adarrak kaltetuta daude.
- Tetraplegia: lau gorputz-adarrak kaltetuta daude.
- Diplejia: beheko gorputz-adarrak goiko gorputz-adarrak baino kaltetuago daude.

Autore horiek "paresia" terminoa jasotzen dute, paralisi arin bati erreferentzia egiteko. Horrela, monoparesiaz, hemiparesiaz, araparesiaz eta tetraparesiaz hitz egiten dugu.

Bestalde, eta mugimenduaren ezaugarrien arabera, Perezek eta Garaigordobilek (2007) honako hau jasotzen dute:

- Espastizitatea: muskulu-tonu handiegia du.
- Hipotonia: muskulu-tonua gutxitzen du.
- Distonia: muskulu-tonuaren alterazioa da, eta uzkurdura aldizkako espasmoak ditu ezaugarri.

Hala ere, autore horiek ondorioztatu dutenez, askotan ezinezkoa da pertsona bat kategoria horietako batean sartzea, batzuen eta besteen artean trantsizio-moduak daudelako. Gainera, kasu askotan, sailkapena are gehiago zailtzen da lotutako nahasmenduak daudelako.

Del Barco (2009) beste sailkapen bat proposatu du, bi irizpide desberdin kontuan hartuta. Hala, mugimen-desgaitasuna sailkatzen du, garuneko afekzio-mota eta urritasuna

eragin zuen arrazoa kontuan hartuta. Lehenik eta behin, pertsonak garunean duen afekzio motari egiten dio erreferentzia. Mugitzeko desgaitasuna izatea, eta honako hauek bereiztea: garuneko paralisia, garuneko lesioa argia denean, eta hezur bifidoa, miopatia, muskulu-distrofia eta poliomielitisa, garuneko afekziorik ez dagoenean.

Ildo berean, Hurtadok (2008) garuneko afekzioa duten nahasmenduen artean garuneko paralisia jasotzen du, hau da, lesio entzefaliko batek eragindako kontrol motorren galera edo alterazioa. Garuneko afekziorik gabeko nahasmenduei dagokienez, adierazi du ez direla hain larriak, baina eragin garrantzitsuak dituztela mugimendu arloan eta eragindako pertsonen garapen sozial, pertsonal eta hezitzailean.

Del Barcok (2009), bigarrenik, aldaketa eragin zuen kausari erreparatzen dio, eta esaten du kausarik ohikoenak infekzioak, transmisio genetikoa eta nerbio-sistemaren edo lokomozio-aparatuaren lesioa direla

Olmedo (2008), irizpide hori bera erabiltzen du nahasmenduaren etiologiari erreferentzia egiteko, eta arrazoi ohikoenak hauek dira:

- Transmisio genetikoa
- Infekzio mikrobianoak (adibidez, hezur-tuberkulosia).
- Garezurreko traumatismoa edo anputazioak eragiten dituzten istripuak.
- Jatorri ezezaguna

Hurtadok (2008) dioenez, etiologiaren arabera, jatorri hereditarioa, sortzetikoa edo perinatalekoa duten nahasmenduak ere bereiz ditzakegula; haurtzaroan hartutakoak edo geroago eskuratutakoak

Azkenik, Olmedok (2008) eta Peraltak (2011) lesioaren jatorrian oinarritutako sailkapena aurkeztu dute, eta adierazi dute jatorria garuna izan daitekeela (garuneko paralisia, garuneko traumatismoa, tumoreak), bizkarrezurra (hezur bifidoa, poliomielitisa, lesioak edo muineko traumatismoak), muskulua (miopatia) edo hezur- eta artikulazio-jatorria. Sailkapen-irizpide hori hezkuntza arloan ohikoena denez, lesio horietako batzuk azalduko ditut labur-labur.

#### **A- Garuneko lesioak**

- Haurren garun-paralisia (PCI): haurren garun-paralisia 1889ra arte “Síndrome de Little” bezala ezagutu zen. Gorputz-jarreraren, tonuaren eta mugimenduaren nahasmendu iraunkorra da, baina ez aldaezina,



entzefaloan disfuntzio bat dagoelako haren hazkundera eta garapena osatu aurretik. Garuneko kalte horrek muskulu-ekintzaren koordinazio desegokia eragiten du, eta ez muskuluen paralisia. Mota hauek bereizten dira:

- Espastikoa: giharren zurruntasuna du ezaugarri.
  - Atetosikoa: muskulu-tonua gorabeheratsua da.
  - Ataxikoa: orekari, muskuluen koordinazioari eta gaitasunari eragiten die.
  - Mugimenduaren zehaztasuna erregulatzekoa.
  - Mistoa
- Traumatismo kraneo entzefalikoa: inpaktu batek eragindako garuneko lesioa, zuzena (kolpea) edo zeharkakoa (masa entzefalikoaren desplazamendua) izan daitezke.
  - Istripu zerebro-baskularra: bat-batean hasten den prozesu neurologikoa, odol-ekarpenaren akatsaren ondorioz, garuneko lesioa eta funtzio motorra behin betiko edo aldi baterako galtzea eragiten duena. Oro har, hemiplejia edo hemiparesiarekin agertzen da, eta hizkuntza galtzea ekar dezake edo ez.

### **B- Muineko lesioak**

- Arantza bifidoa: ornoetako kanalaren itxieraren sortzetiko malformazioa, bizkarrezur-muinaren eta/edo meningeen zati baten kanporako irteerarekin edo irteerarik gabe joatea. Lesio iraunkorra da, eta ezin da aldatu. Lesioaren mailak eta hedadurak ematen dute pronostikoa.
- Bizkarrezur-muineko lesio traumatikoa: traumatismo baten ondorioz sortutako lesioa, nerbio-bideak, zentzumenak eta motorrak garunarekin deskonektatzea eragiten duena. Lesio iraunkorra da, eta ezin da aldatu. Honako honen arabera: Lesioaren maila, nahasmenduak aldakorrek dira: tetraplejia eta paraplejia.


### **C- Prozesu neuromuskularrak**

- Muskulu-distrofia progresiboa: muskulu-trofismoaren alterazio bat da, borondatezko ekintza-muskuluen ahultzea eta endekapena eragiten du progresiboki

- Distrofia motaren arabera, gaixotasunaren ondorioak onberak izatetik oso larriak izatera aldatzen dira. Azken horiek narriadura fisikoa eragiten dute pixkanaka, eta martxa galtzeraino iristen da, arnasteko gaitasuna mugatzen du eta bizi-itzaropena murrizten du.
- Neuromiopatiak: sortzetiko gaixotasunak dira, desmielinizataileak eta eboluzioko aldakorrekoak. Haien zorrotasun-maila aldatu egiten da sintomarik gabeko formetatik oso larriak diren formetaraino. Kasu arinetan, nolabaiteko paralisia gertatzen da beheko gorputz-adarretan, martxa eragotzi gabe (nahiz eta aparatu ortopedikoak behar izan). Oso larrietan, ezinezkoa da ibiltzea.

#### **D- Prozesu osteoartikularrak**

Lesio ebolutiboak dira. Gertatzen diren asalduren artean hezurrei eta artikulazioei eragiten dieten malformazioak daude. Sortzetiko etiologiakoak, distofikoak eta hartutakoak izan daitezke. Mugikortasun gutxi dute giltzaduren zurruntasunagatik, mina saihesten duten jarrerengatik eta, oro har, jarrera-zailtasunagatik.



## 1.4 Eskola inklusiboa Euskal Herrian

Euskal Herrian urritasunak dituzten ikasleen egoeraz konturatzeko, etea zehazki, Arabako egoera ezagutzeko, Euskadin Eskolako Kontseiluak 2015etik 2017ra sortutako “*La Educación en Euskadi. Informe 2015-2017*” txostena oinarritzat hartuko dut. Hemen bai Arabako eta bai Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) datuak biltzen dira. Hauek 2015 etea 2017 urteen bitartean jaso izan dira.

Txostenaren arabera, 2016tik 2017ra 8.019 ikasle zeuden Hezkuntza Premia Berezidunekin, 2 urtetatik batxilergora arteko etapen artean (1. Taula)

Evolución del alumnado según el tipo de n.e.e. de 2015 a 2017.

	2014-15	2015-16	2016-17	$\Delta 16/14$
Discapacidad Auditiva	398	420	408	2,5%
Discapacidad Motora	791	852	787	-0,5%
Discapacidad Intelectual	2.070	2.167	2.126	2,7%
Discapacidad Visual	215	218	240	11,6%
T. Generalizados Desarrollo	1.904	2.277	2.545	33,7%
T. Grave de Conducta	1.337	1.568	1.608	20,3%
Pluridiscapacidad	245	248	305	24,5%
ALUMNADO CON NEE	6.960	7.750	8.019	15,2%

### 1 Taula: Hezkuntza Premia Berezidun ikasleen bilakaera 2015etik 2017ra

Taularen datuei erreparatuz, ikusi dezakegu urteak pasa ahala, gero eta ikasle gehiago daudela hezkuntza berezian. Horren ondorioz, behar bereziak dituzten ikasleen beharrak asetzeko, gaur egungo eskoletan gero eta proiektu eta laguntza gehiago eskaintzen dituzte. Gainera, profesional espezializatuen laguntza ere gogoan hartzen dute.

## 1.5 Curriculumarekiko lotura

Ikastola eta ikastetxeak gizartearen barne daudela kontuan izanda, gizartean zein eskoletan, inklusioak aniztasunari nola erantzun behar diogun zehazten du. Eskola inklusiboa deskribatu ahal izateko, alderdi asko hartu behar ditugu kontuan. Izan ere, eskola inklusiboa sare bat da, hezkuntza berri bat eta guztiontzako dena. Ondorioz, helburuak lortzeko zenbat eta alderdi gehiago heldu, orduan eta sendoagoa izango da eskola inklusiboa.

Bestalde, Heziberri dokumentuetan azaltzen den bezala (236/2015 DEKRETUA, 2016ko urtarrilaren 15a), eskola inklusiboak kalitatezko hezkuntza eta hezkuntza-aukera berberak eman nahi dizkie ikasle guztiei; horrenbestez, eskola inklusiboaren planteamenduan sartzen da aniztasun horren onarpen faltaz kontzientzia hartzea, genero-arrazoiengatik, gizarte presioez eta bazterketez jabetzea, eta diskriminazio-egoerak erregulatzea (Eusko Jaurlaritza, 2016, or. 54).

Zorionez, hezkuntza-inklusiboarekin konprometituta dauden zenbait egile daude eta haien informazioaren laguntzarekin eskola inklusiboa zer den azaltzeko: *“haur eta gazte guztiak hezkuntzara irits daitezzen bermeak ematen dituen da eskola inklusiboa; baina, edonola ere, ahotan darabilgun hezkuntza hori ez da edonolakoa kalitatezko hezkuntza-sistema bat baizik, denei aukera-berdintasuna, justizia eta ekitatea bermatzen diena”* (Ainscow, Booth eta Dyson, 2006; Echeita eta Duk, 2008, Eusko Jaurlaritzan, 2014, or. 43).

Eusko Jaurlaritzako beste dokumentu batean jasota daude urritasun desberdinak: entzumena, ikusmena, motorea, etab. eta urritasun horiek pairatzen dituzten ikasleentzako hezkuntza proposamen bat egiten da. Bertan informazio orokorra ematen da urritasun desberdinen inguruan eta irakasleentzat lagungarriak izan daitezkeen orientatzeko baliabide eskaintzen ditu. Ez da Gorputz Hezkuntzan zentratzen baina zenbait aholku orokorrak dira eta edozein eremutan erabil daitezke. Txostenaren izenburua *“Las Necesidades Educativas Especiales en la Educación Primaria”*.

## **1.6 Gorputz Hezkuntza: inklusioa lantzeko bidea**

Behin taula aztertuta, Euskal Herriko eta, noski, Arabako eskoletan behar bereziak dituzten ikasleen egoera behatu ahal izan dugu. Horregatik, Gorputz Hezkuntza inklusio puntu bezala hartuz, egoera horiek nola landu ditzakegun ikusiko dugu. Funtsezkoa da Gorputz Hezkuntzak daukan garrantzia azpimarratzea. Historian zehar, Gorputz Hezkuntza bere lekua hartzen joan da; Hezkuntza Sistemaren parte ez izatetik parte izatera eta garrantzi gutxi izatetik handia izatera.

Lehen, Hezkuntza Premia Bereziak zituzten ikasleek ez zuten hezkuntzarako eskubiderik etea bazterketa izugarria jasan behar izan zuten. Ondorioz, ikasle hauen garapen eta integrazio prozesua ia ez zen existitzen (Dussan, 2010).

Hala ere, azken urte hauetan integrazio terminoak eboluzio handia jasan du, inklusio terminora hurbiltzeko aukera emanez. Bi termino hauen arteko ezberdintasunak nabariak dira. Baina inklusioan sartu baino lehen, integrazio terminoaren esanahia aztertuko dugu.

Integrazioak Hezkuntza Premia Berezidun ikasleetan bakarrik jartzen du arreta. Ikasle hauek behar duten hezkuntza bermatzeko aldaketak curriculumaren egokitzapenean oinarritzen dira (Blanco, 2006). Aldera, inklusioak edozein motatako bereizketaren aurka egiten du, ikasle guztien beharretara egokitzeko kalitatezko hezkuntza bat bilatuz.

Horretaz gain, hezkuntza inklusiboak ikasle guztiak hartzen ditu kontuan, guztiei zuzenduta baitago. Aldi berean, ikasle bakoitzaren gaitasunak garatzeko beharrezkoak diren baldintzak eskaintzen dizkio, hau posible da diskriminazio baldintzarik jartzen ez duelako. Modu honetan hezkuntza eskubidea, aukera berdintasuna eta partaidetza bermatu ahal dira (Fernández-Batanero, 2005).

## **2. IRAKASLEEI EGINDAKO INKESTA**

### **2.1 Prozedura**

Bigarren puntu honetan gai honen inguruan irakasleek daukaten iritzia ezagutuko dugu. Horretarako bi elementu hartuko ditut kontuan: lehenengoa 2017an Cordoban egindako inkesta izango da. Bertan Lehen Hezkuntzako irakasleei hurrengo gaien inguruan galdetzen zaie: urritasunaren kontzepzioa Gorputz Hezkuntzan, plangintza didaktikoa eta curriculum-diseinua, prestakuntza-beharrak eta prestakuntza-eskaerak. Bigarren elementua, Cordoban erabili zen inkestako galderak erabiliko ditut eta Arabako zenbait ikastola eta ikastetxetako Lehen Hezkuntzako Gorputz Hezkuntzako irakasleei zuzenduta egongo da.

### **2.2 Cordoban egindako inkesta**

Lehenengo galdetegia Cordobako Unibertsitateak eraman zuen aurrera 2017-an. Galdeketa honen helburua informazioa biltzeko, deskubritzeko eta aztertzeko tresna bat diseinatzea da. Modu honetan eskoletako Gorputz Hezkuntzan urritasun fisikoren bat duten ikasleen beharrak hobeto ulertu eta, era berean, behar diren moldaketak egiteko erabilgarria den informazioa jasoko dugu. Hasieran aipatu bezala, inkesta honen helburua informazioa biltzeko tresna bat biltzea da. Hau da, Cordobako irakasleek ez zuten gai honekiko haien iritzia eman, baizik eta proposatutako galderen egokitasuna eta argitasuna baloratu zuten.

#### **Emitzak eta ondorioak**

Lagineko 35 irakasleek adierazitako emaitzen arabera, galderak egokiak eta argiak dira, *Lickert* eskala erabilita, neurria 1etik 5erakoa izanda, galdera guztiek 4 puntu edo gehiago dauzkate.

Ikasketa arrakastatsua izan zela ondorioztatu zuten. Alde batetik, urritasun fisikoak dituzten ikasleen errealitatea deskribatu ahal izan zutelako. Bestalde, lortutako emaitzei esker prestakuntza gabezia zein puntutan dagoen zehaztu ahal izan zutelako. Modu honetan, laguntza gehien behar duten arloei zuzenduta dauden akzio hezitzaile desberdinak sortu ahal izan dira.

### 2.3 Araban egindako inkesta


Cordobako inkesta oinarritzat hartuz, nirea sortzeko aurretik aipatutako lau dimentsioen inguruan ere galdetu diet irakasleei: urritasunaren kontzepzioa Gorputz Hezkuntzan, plangintza didaktikoa eta curriculum-diseinua, prestakuntza-beharrak eta prestakuntza-eskaerak. Lau puntu hauetaz gain, azken atal bat gehitu dut, bertan iruzkin libre bat idazteko eskatu nien irakasleei. Agian inkestan islatzen ez zen beste aspektu baten inguruan hitz egin nahi balute. Baina beste ikuspuntu batetik erantzutea nahi nuen. Galderen inguruan iritzia eman ordeztu, haien esanahiaren iritzia jakin nahi nuen. Hau da, Gorputz Hezkuntzan eman daitekeen urritasun fisikoen haien iritzia jaso nahi nuen. Cordobako inkestan bezala, *Lickert* eskala erabili dut, 1etik 5erako neurriarekin.

### 2.4 Emaitzak eta ondorioak

Azken puntu honetan Arabako eskoletako irakasleek duten iritzia bakarrik islatuko dut. Egoera ideala bi inkestak, Cordobakoa eta Arabakoa, konparatu ahal izatea izango litzateke, baina ikuspuntu desberdinetatik eginda daudenez, ez da posible izan.

Hasteko, 9 irakasleren artean 7 gizon eta 2 emakumek erantzun dute. Guztiak ikastola publikoak dira eta haien esperientzia Gorputz Hezkuntzako irakasle bezala 2 urtetatik 25 urterakoa da. Urritasun kontzeptuaren inguruan galdetzerakoan, galdera gehienetan iritzi desberdinak aurki ditzakegu. Lehenengo galdera adibide argia da:

Ezagutzen dut gatazka motoreen klasifikazioa.  
9 erantzun



Hainbeste iritzi desberdin egoteak faktore desberdinen eraginagatik eman daiteke, hala nola; esperientzia edo formakuntza maila.


Aldiz, ikasleen aniztasunari galdetzerakoan, %88,9ak guztiz ados dago taldearentzat aberasgarria dela, eta %11,1a ados dago. Era berean, mugitzeko mugak dituzten ikasleak egoteak mugarik ez duten



ikasleen errendimendua zaildu egiten duela galderari %66,7a ez dago batere ados eta %33,3a ez dago ados. Niretzat erantzun hauek oso esanguratsuak dira, urritasun fisikoak dituzten ikasleak oztopoak ez direla argi ikusten delako.

Plangintza didaktikoa eta curriculum-diseinuari dagokionez, alde positiboak eta negatiboak aurkezten dira. Alde positiboa irakasleak prest eta gai sentitzen direla eta curriculumean beharrezko moldaketak egiten dituztela adieraz dute. Alde negatiboen barruan ikastolen egokitzapen maila dago. Grafikoan ikusten den moduan, irakasleen erdiak baino gehiagok esan dute instalazioak ez daudela egokituta mugikortasun mugak

Ikastetxeko instalazioak egokituta daude Gorputz Hezkuntzaren arloan mugikortasunean mugak dituzten ikasleei arreta emateko.  
9 erantzun




dituzten ikasleentzat.

Instalazioetaz gain, material falta ere somatzen dute irakasleek.

Azken alde negatiboa bada irakasleek ez dutela espezialisten laguntzarik jasotzen curriculuma egokitzeko.

Prestakuntza beharrei erreparatuz, gabezia nahiko nabaritzen da arlo honen inguruan. Nahiz eta aurreko atalean esan bezala, irakasleak prest daude eta gai ikusten dira moldaketak egiteko, baina behar besteko prestakuntza duten galdetzerakoan, hau da

Behar besteko prestakuntza dut Gorputz Hezkuntzako eskoletan mugitzeko mugak dituzten ikasleei erantzuteko.  
9 erantzun




grafikak esaten duena: irakasleek ez dakite oso ongi prestatuta dauden ala ez.

Aldi berean, dibertsitate funtzionala duten ikasleek behar dituzten egokitzapenak egiteko, irakasleek prestakuntza espezifikoa behar dela aitortzen dute, baina erdia

baino gehiago ez dira eguneratze jardueretara joaten.

Gorputz Hezkuntzarekin eta dibertsitate funtzionalarekin lotutako prestakuntza-jardueretara joaten naiz aldizka.  
9 erantzun



Azkenik, prestakuntza-eskaerak aztertuz, ondorio positiboak atera ahal izan ditut.

Grafikoan erakusten den moduan, irakasleen iritzi orokorra da prestakuntza

espezializatua behar dela.

Profesional gehienek

prestakuntza-ikastaroetan eta

jardueretan parte hartuko lukete,

egoerak eskatzen duen


momentuan erabat galdurik ez

egoteko. Baita haien ikasleen

bizi kalitatea hobetzeko. Beraz,

ondorio orokor bezala esan dezakegu irakasleek hobetzeko prest daudela ikasleei ahalik eta hezkuntza hobereana emateko.

Psikomotrizitateko prestakuntza espezializatua behar da  
9 erantzun



Iruzkina libreari dagokionez, denetarik iritziak daude. Hauek dira gehien gustatu zaizkidan erantzunak:

- *Galdera zabal samarra da. Nire esperientzian, gatazka motor horren maila desberdinekin topo egin dut. Unibertsitatean gutxi ukitzen da gai hori, eta egoera horrekin aurkitzen zarenean, zure kabuz pertsona horiengana iristeko modua bilatzea besterik ez zaizu geratzen, gainerako ikaskideengana bezala. Oso interesgarria litzateke nolabaiteko prestakuntza izatea, baita lanean egonda ere. Badirudi ikastetxeetako prestakuntza guztiak ikasgelara bideratuta daudela eta konpetentzia motorra ahaztu egiten dutela.*
- *Askotan GHko espezialistak bakarrik gaude horrelako egoeren aurrean eta ez dugu inoren laguntzarik. Irakasle bakoitzaren*

*konpromiso eta jarrerak markatuko du ikasle horrek izango duen esku hartze maila GHko saioetan. Tamalez horrela da gaur egun...*

- *Klasea prestatzerakoan, argi izan behar dugu zein gatazka motor duen ikasleak eta zein jolas edo ariketa egingo ditugun. Eta galdetegian esan bezala, aniztasuna guztiz aberasgarria da klasean, eskola eta bizitzan, Formakuntzak izatea aberasgarria izango litzateke.*

Erantzun hauek ikusita, argi dago guztiek bat egiten dutela egokitzapenak beharrezkoak direla esaterako orduan. Garrantzitsua da azpimarratzea 2 urtetako esperientziatik 25 urtetarako aldea dagoela. Denak aspektu horretan ados egotea seinale ona dela pentsatzen dut. Beste alde batetik, zenbait irakaslek espezialisten laguntza izaten dute egokitzapenak egiterako orduan, baina beste batzuk ez. Horren ildotik, ezinbestekoa da irakasle guztien artean komunikazio eta koordinazio on bat egotea.

### **3. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA**

Helburuetan aipatu bezala, proposatuko dudan Unitate Didaktikoan *Ultimate frisbee* kirola landuko da eta monopolejia duen ikasle batentzako egokitzapenak egingo ditut. Unitate Didaktiko osoa 4. Eranskinean dago.

#### 4. HAUSNARKETA

Gratu Amaierako Lana hasi nuenean, nahiko urduri baina aldi berean pozik nengoen. Gorputz Hezkuntzako minorra egiterakoan, gai oso interesgarria iruditu zitzaidan. Hasieratik konturatu nintzen ez direla jolasak bakarrik, horien atzean helburu bat dagoela eta normalean edukiren bat lantzen dela. Horrekin batera, Practicum II-an ezagutu nuen neska bati esker, gai honen inguruko lan bat egitea pentsatu nuen. Neska honek paralisi partziala du eta, hortaz, mugikortasunean mugak ditu, batez ere motrizitate finari eragiten dio. Bi arrazoi hauengatik dibertsitate funtzionala duen ikasle bati egokitutako proposamen didaktiko bat aurkeztea erabaki nuen.

Hasieran lana hastea eta bideratzea kostatu zitzaidan, alde batetik gaiaren inguruan asko ez nekielako, eta bestetik, inklusioa lantzeko material falta dagoela iruditu zitzaidalako. Hala eta guztiz ere, hasieran tutorearekin partekatutako ideia mantendu izan dut. *Ultimate frisbee*-ko proposamen didaktikoa egitearen zergatiak bi dira. Lehenengoa monopolejia duen ikasle batentzako egokituta dagoenez, kontaktu gutxiko kirol edo jolas bat izan behar da. Nahiz eta ikaskideek bere ahulezia jakin, batzuetan jolasten ari direnean zirraren eraginagatik ahaztu ahal zaie. Beste arrazoiak normalean egiten ez den jarduera bat delako da. Horrek ez du esan nahi ikastola edo ikastetxe batzuetan egiten ez denik, baina ez da ohikoena.

Aurreko puntuaren harira, argi dago inklusioaren bidea ez dela erraza eta gaur egun edozein arlotan, kasu honetan eskoletan, sustatzea erronka handia suposatzen du. Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntza curriculumean agertzen den moduan, inklusioa ikasgai desberdinetan lantzen da. Baina errealitatean askotan inklusioak behar duen lanketa, garrantzia eta denbora ez da bermatzen. Ondorioz, bazterkeria egoerak saihesteko eta ikasleak txikitatik pentsamendu kritikoan hezteko, ezinbestekoa da inklusioarekiko sentsibilizazio jarduerak Heziketa Premia Berebidun eta gainontzeko ikasleekin lantzea. Gainera, desinformazio gizarte honetan bizitzea arriskutsua dela uste dut. Arazo eta egoera desatseginak sor daitezke informazio faltagatik hain zuzen ere. Eskolak eta gizarteak berdintasuneko mezua transmititu behar dute, mespretxuzko komentario eta pentsamenduak alboratu arte, ezin izango dira “Inklusioa” eta “Hezkuntza Premia Bereziak” modu natural batean landuko ezta ulertuko ere.

Gaur egungo eskolen errealitatea ezagututa, inklusioa modu aberasgarri batean lantzeko asmoarekin proposamen didaktiko hau sortu dut. Zoritxarrez, ezin izan dut praktikara eraman, baina aurrerago erabiltzeko aukera izango dudalakoan nago.

Etorkizunera begira, eskoletan eta gizartean orokorrean pentsamendu, lan eta aldaketa handiak egiteko bidean gaude, baina oraindik helmugara heltzeko bide luzea gelditzen zaigu. Baina aurrera egiten ari garela ikustea ona da, gizartean gertatu diren aldaketa handi gehienek denbora behar izan dute. Horregatik, proposamen honetan diseinatutako jarduerak pausu txiki bat direla iruditzen zait. Bukatzeko, prestatutako unitate didaktikoa beste ikasle eta irakasleentzako lagungarria izatea espero dut eta etorkizunean erabili ahal izatea gustatuko litzaidake.

## 5. BIBLIOGRAFIA

- Blanco, R. (2006). La equidad y la inclusión social: Uno de los desafíos de la educación y la escuela hoy. *REICE: Revista Iberoamericana sobre calidad, eficacia y cambio en educación*, 4 (3), 1-15
- Comisión de Política Gubernamental en Materia de Derechos Humanos (URTEA). *Glosario de términos sobre discapacidad*.  
[http://www.semar.gob.mx/derechos\\_humanos/glosario\\_terminos\\_discapacidad.pdf](http://www.semar.gob.mx/derechos_humanos/glosario_terminos_discapacidad.pdf)
- Darretxe, L. (2013). *Hezkuntza Inklusiboa eta Aniztasunari Arreta*.
- Del Barco, M.D. (2009). Intervención educativa en la discapacidad motórica y sensorial. *Revista digital Innovación y experiencias educativas*, 16
- Díaz Velázquez, E. (2017). Reflexiones epistemológicas para una sociología de la discapacidad, 3(2), 1-15.  
<http://www.scholarlyexchange.org/ojs/index.php/InterSoc/article/view/4557>
- Díaz Velázquez, E. (2017). Reflexiones epistemológicas para una sociología de la discapacidad, 3(2), 1-15.  
<http://www.scholarlyexchange.org/ojs/index.php/InterSoc/article/view/4557>
- Dussan, C. P. (2010). Educación inclusiva: Un modelo de educación para todos. *ISEES: Inclusión Social y Equidad en la Educación Superior*, 8, 73-84  
<file:///C:/Users/Asus/Downloads/EstudiosdePsicologiamotriz.pdf>
- Eusko Jaurlaritza, (2014). *Heziberri 2020. Hezkuntza eredu pedagogikoaren esparrua*. Vitoria-Gasteiz: Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila.
- Eusko Jaurlaritza, (2016). *236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum a zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena*
- Eusko Jaurlaritza, (s.f.). *Las Necesidades Educativas Especiales en la Educación Primaria*. Honako webgune honetatik berreskuratuta:  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn\\_doc\\_esc\\_inclusiva/es\\_d ef/adjuntos/especiales/110008c\\_Doc\\_EJ\\_nee\\_primaria\\_c.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_esc_inclusiva/es_d ef/adjuntos/especiales/110008c_Doc_EJ_nee_primaria_c.pdf)

- Fernández-Batanero, J. M. (2005). ¿Educación inclusiva en nuestros centros educativos? Sí, pero ¿cómo? *Contextos educativos: Revista de educación*, (8), 135-148.
- Grau, C. (2005). *Educación especial: orientaciones prácticas*.
- Hurtado, M.J. (2008). Propuestas educativas ante el alumno con discapacidad motora. *Revista digital Innovación y experiencias educativas*, 14.
- Lizasoáin, O. y Peralta, F. (2004). *Aproximación a la educación especial desde el marco teórico y organizativo*.
- Melguizo, R. C. (2014). Evolución del concepto de discapacidad en la sociedad contemporánea: de cuerpos enfermos a sociedades excluyentes. *Revista UCLM Praxis sociológica*, 18, 155-175.  
<https://revista.uclm.es/index.php/praxissociologica>
- Olmedo, C. (2008). Los alumnos con deficiencia motora. *Revista digital Innovación y experiencias educativas*, 9.
- Palacios Rizzo, A., & Bariffi, F. J. (2014). La discapacidad como una cuestión de derechos humanos. *Una aproximación a la Convención Internacional sobre los Derechos de las Personas con Discapacidad*, 1(4),  
[http://www.discapacidadsiquica.cl/a\\_palacios\\_discapacidad\\_cuestrion\\_ddhh.pdf](http://www.discapacidadsiquica.cl/a_palacios_discapacidad_cuestrion_ddhh.pdf)
- Palacios, A., & Romañach, J. (2006). *El modelo de la diversidad: la bioética y los derechos humanos como herramientas para alcanzar la plena dignidad en la diversidad funcional*.  
<https://earchivo.uc3m.es/bitstream/handle/10016/9899/?sequence=1>
- Peralta, F. (2011). *Niños diferentes: los trastornos del desarrollo y su intervención psicopedagógica*.
- Pérez, J.I. y Garaigordobil, M. (2007). Discapacidad motriz: autoconcepto, autotestima y síntomas psicopatológicos. *Estudios de Psicología*, 28 (3), 343-357.
- Suriá, R. Rosser, A. Villegas, E. (2016). *Discapacidad e integración en las aulas, ¿es un factor generador de inquietud entre el profesorado?*  
[https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/59786/1/XIV-Jornadas-Redes-ICE\\_210.pdf](https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/59786/1/XIV-Jornadas-Redes-ICE_210.pdf)



Vázquez Ferreira, M. Á. (2010). De la minus-valía a la diversidad funcional: un nuevo marco teórico-metodológico. *Política y sociedad*, 47(1), 58-59.  
<http://www.espanholaccessivel.ufc.br/22816-22835-1-PB.PDF>

## 6. ERANSKINAK

### 1. Eranskina: Glosarioa

Atal honetan glosario txiki bat sortu dut, aurretik aipatutako kontzeptuak laburtzeko eta hitz gutxitan azaltzeko. Orain definituko ditudan hitzak dokumentu honetatik hartu ditut:

- **Urritasuna:** Gorputz-funtzio edo -egituretako arazoak dira, hala nola desbideratze esanguratsu bat edo galera bat.
- **Desgaitasun motorea:** Edozein gorputz-organo edo -sistematan afekzio baten ondorioa da.
- **Behar berezidun ikaslea:** Taldeko kideekin alderatuta, eskola-jarduera nabarmen desberdina duena; horretarako, hezkuntza-prozesuan baliabide gehiago sartu behar dira, haien parte-hartzea eta ikaskuntza lortzeko eta, horrela, hezkuntza-helburuak lortzeko. Baliabideak profesionalak, materialak, arkitektonikoak eta curriculumekoak izan daitezke
- **Oztopo/traba:** Pertsona baten inguruko faktoreak, funtzionaltasuna mugatzen dutenak eta desgaitasuna eragiten dutenak. Honako hauek sartzen dira: ingurune fisiko eskuraezinak, laguntza teknologiko egokiaren falta eta desgaitasunarekiko jarrera negatiboak.
- **Kirol egokitua:** Desgaitasun fisikoak, psikikoak edo hautemateko arazoak dituzten pertsonen parte-hartzea ahalbidetzeko aldaketak onar ditzakeen kirol-jarduera fisikoa da.
- **Diskriminazioa:** Politika-, ekonomia-, gizarte-, kultura-, zibil- edo bestelako eremuetan giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiak baldintza berberetan aitortu edo gozatu ahal izateko oztopatzeko helburua duen edozein bereizketa, bazterketa edo murrizketa da. Desgaitasuna duten pertsonen aurkako diskriminazio mota guztiak hartzen ditu barne, besteak beste, arrazoizko egokitzapenak ukatzea.
- **Hezkuntza berezia:** Hezkuntza-zerbitzu hau hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat da, eta lehentasun handiagoa dute desgaitasuna dutenek edo gaitasun bikainak dituztenek. Ikasleei beren baldintzen arabera erantzuten die, gizarte-ekitatez.

- **Eskola inklusiboa:** Hezkuntza inklusiboak ikasle guztien sarbidea, iraupena, parte-hartzea eta ikaskuntza bermatzen ditu, arreta berezia jarritz, baztertuta edo hala egoteko arriskuan daudenengan, ikasleen ikaskuntza eta parte-hartzea mugatzen duten eta ikasleen eta haien testuinguruen arteko interakziotik sortzen diren ekintza-multzoak dira. Behar duten ikasleentzat oztupoak ezabatzeko edo murrizteko helburuarekin
- **Aukera-berdintasuna:** Ingurune juridikoan, sozialean, kulturean eta ondasun eta zerbitzuetan beharrezko egokitzapenak, doikuntzak eta hobekuntzak egiteko prozesua, desgaitasunen bat duten pertsonen integrazioa, bizikidetzaren eta parte-hartzearen errazteko, gainerako herritarren aukera berberekin.
- **Desgaitasuna duten pertsonak:** Epe luzera urritasun fisikoak, intelektualak, mentalak edo sentzorialak dituzten pertsonak dira, hainbat oztoporekin elkarreraginean jardutean, gizartean beren parte-hartze osoa eta eraginkorra eragotzi dezaketena, gainerako baldintza berberetan.

## **2. Eranskina: Inkestaren galderak**

### **"Urritasunaren kontzepzioa Gorputz Hezkuntzan"**

- Sexua
- Ikastetxe publiko/itundu batean lan egiten dut
- Zenbat urte daramatzazu Gorputz Hezkuntzako irakasle bezala lan egiten?
- Ezagutzen dut gatazka motoreen klasifikazioa
- Argi daukat zer esan nahi duen ikasle batek mugikortasunean mugak izateak
- Nire ustez, zaila da gorputz-hezkuntzaren arloan eskola-jarraibide onak mantentzea mugikortasunean mugak dituzten ikasleekin.
- Mugikortasunean mugak dituzten ikasleek ezin dute Gorputz Hezkuntzako eskola baldintza berdinetan gauzatu, mugikortasunean mugarik ez duten ikasleek bezala.
- Mugikortasunean mugak dituzten ikasleen arreta, pedagogia terapeutikoko espezialistaren zeregina da.
- Gorputz Hezkuntzako eskoletan, mugikortasunean mugak dituzten ikasleak eta mugikortasunean mugarik ez dutenak desberdin sentitzen dira.
- Nire ustez, ikasleen aniztasuna aberasgarria da talde osoarentzat.
- Ikasgelan mugikortasunean mugak dituzten ikasleak egoteak zaildu egiten du mugarik gabeko ikasleen errendimendua.

### **"Plangintza didaktikoa eta curriculum-diseinua"**

- Badakit zeintzuk diren Gorputz Hezkuntzaren arloko helburu orokorrak.
- Curriculumean ikasleekin lan egiteko deskribatutako funtzioak ezagutzen ditut
- Ikastetxeko instalazioak egokituta daude Gorputz Hezkuntzaren arloan mugikortasunean mugak dituzten ikasleei arreta emateko.
- Ikastetxeak dituen materialen artean, Gorputz Hezkuntzaren arloan mugikortasunean mugak dituzten ikasleekin lan egiteko material espezifiko dago.

- Ezagutzen ditut Gorputz Hezkuntzaren arloan mugikortasunean mugak dituzten ikasleen programazio didaktikoa egokitzeko egin beharreko urratsak.
- Espezialisten laguntza jasotzen dut nire arloan curriculuma egokitzeko.
- Lan-saio berean errealizazio-maila desberdinak ahalbidetzeko diseinatuta daude eskolak.
- Nire burua gai ikusten dut gatazka motorrak duten ikasleekin lan egiteko Gorputz Hezkuntzaren arloan.
- Gai sentitzen naiz modu eraginkorrean koordinatzeko ikastetxe barruko eta kanpoko hezkuntza bereziko beste espezialista batzuekin
- Gai sentitzen naiz ikasle guztien prestakuntza-funtzioa betetzen duten ebaluazio-tresnak diseinatzeko.
- Lana behar bezain argi aurkezteko behar diren trebetasunak ditut, mugikortasun mugak dituzten eta ez dituzten ikasleek behar bezala ulertu eta egin ahal izan dezaten

#### **“Prestakuntza-beharrak”**

- Ikastetxeek beharrezko prestakuntza eskaintzen dute, irakasleek urritasunari buruzko ezagutza gehiago izan dezaten.
- Behar besteko prestakuntza dut Gorputz Hezkuntzako eskoletan mugitzeko mugak dituzten ikasleei erantzuteko.
- Irakasle gisa, dibertsitate funtzionalarekin lotutako gaietan eguneratzen saiatzen naiz, ikasleei ikasgelan ahalik eta erantzun onena emateko.
- Koordinazio ona dago ikastetxe barruko hezkuntza bereziko irakasle espezialistekin, eta haien laguntza jasotzen dut.
- Hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleei buruzko prestakuntza nahitaez bete behar dute ikastetxe bateko irakasleek.
- Arazoak ditut mugitzeko mugak dituzten ikasleek gelaren erritmo normalari jarraitzeko, nahiz eta beharrezko egokitzapenak egin.
- Gatazka motorren bat duten ikasleekin lan egiteko, Gorputz Hezkuntzaren arloan lan egiten duten irakasleek prestakuntza espezializatua jaso behar dute.

- Dibertsitate funtzionalari buruzko prestakuntza espezifikoa behar da curriculumaren arlo guztietan.
- Gorputz Hezkuntzarekin eta dibertsitate funtzionalarekin lotutako prestakuntza-jardueretara joaten naiz aldizka.

### **“Prestakuntza-eskaerak”**

- Prestakuntza espezifikoa behar da gorputz-hezkuntzaren arlorako materialak eta baliabideak sortzeko eta erabiltzeko.
- Urritasun fisiko mota guztietan espezializatutako prestakuntza-ikastaroetan parte hartuko nuke.
- Dibertsitate funtzionala duten ikasleen ikaskuntza ebaluatzeko sistemekin lotutako prestakuntza-jardueretara joango litzateke.
- Dibertsitate funtzionala duten ikasleen bizi-kalitatea hobetzeko egokitutako jarduera fisikoak lantzen dituzten ikastaroetara joango nintzateke.
- Gizarte-trebetasunei buruzko prestakuntza egokia behar da, irakaskuntzan jarduteko.
- Psikomotrizitateko prestakuntza espezializatua behar da
- Jolas herrikoi eta alternatiboekin lotutako prestakuntza-ikastaroetara joango nintzateke.

### **Iruzkina librea**


- Galderak erantzun ondoren, zehatzago jakin nahiko nuke zer ikuspegi, pentsamendu edo hausnarketa dituzun gatazka motorren bat duten haurrei buruz.

### 3. Eranskina: Inkestaren erantzunak

#### Galdera orokorrak


Sexua

9 erantzun



Ikastetxe publiko/itundu batean lan egiten dut.


9 erantzun



## Urritasun kontzepzioa Gorputz Hezkuntzan


Ezagutzen dut gatazka motoreen klasifikazioa.

9 erantzun




Argi daukat zer esan nahi duen ikasle batek mugikortasunean mugak izateak.

9 erantzun




Nire ustez, zaila da gorputz-hezkuntzaren arloan eskola-jarraibide onak mantentzea mugikortasunean mugak dituzten ikasleekin.

9 erantzun







Mugikortasunean mugak dituzten ikasleek ezin dute Gorputz Hezkuntzako eskola baldintza berdinetan gauzatu, m...nean mugarik ez duten ikasleek bezala.  
9 erantzun



Mugikortasunean mugak dituzten ikasleen arreta, pedagogia terapeutikoko espezialistaren zeregina da.  
9 erantzun




Gorputz Hezkuntzako eskoletan, mugikortasunean mugak dituzten ikasleak eta mugikortasunean mugarik ez dutenak desberdin sentitzen dira.  
9 erantzun




Nire ustez, ikasleen aniztasuna aberasgarria da talde osoarentzat.

9 erantzun



Ikasgelan mugikortasunean mugak dituzten ikasleak egoteak zaildu egiten du mugarik gabeko ikasleen errendimendua.


9 erantzun



## Plangintza didaktikoa eta curriculum-diseinua


Badakit zeintzuk diren Gorputz Hezkuntzaren arloko helburu orokorrak.

9 erantzun




Curriculumean ikasleekin lan egiteko deskribatutako funtzioak ezagutzen ditut

9 erantzun




Ikastetxeko instalazioak egokitu daude Gorputz Hezkuntzaren arloan mugikortasunean mugak dituzten ikasleei arreta emateko.

9 erantzun




Ikastetxeak dituen materialen artean, Gorputz Hezkuntzaren arloan mugikortasunean mugak dituzten ikasle...an egiteko material espezifiko dago.


9 erantzun




Ezagutzen ditut Gorputz Hezkuntzaren arloan mugikortasunean mugak dituzten ikasleen programazio didaktikoa egokitzeko egin beharreko urratsak.  
9 erantzun



Espezialisten laguntza jasotzen dut nire arloan curriculuma egokitzeko.  
9 erantzun




Lan-saio berean erre realizazio-maila desberdinak ahalbidetzeko diseinatuta daude eskolak.  
9 erantzun




Nire burua gai ikusten dut gatazka motorrak duten ikasleekin lan egiteko Gorputz Hezkuntzaren arloan.

9 erantzun




Gai sentitzen naiz modu eraginkorrean koordinatzeko ikastetxe barruko eta kanpoko hezkuntza bereziko beste espezialista batzuekin

9 erantzun




Gai sentitzen naiz ikasle guztien prestakuntza-funtzioa betetzen duten ebaluazio-tresnak diseinatzeko.

9 erantzun




Lana behar bezain argi aurkezteko behar diren trebetasunak ditut,  
mugikortasun mugak dituzten eta ez ditu...zala ulertu eta egin ahal izan dezaten  
9 erantzun




### **Prestakuntza-beharrak**

Ikastetxeek beharrezko prestakuntza eskaintzen dute, irakasleek urritasunari  
buruzko ezagutza gehiago izan dezaten.  
9 erantzun




Behar besteko prestakuntza dut Gorputz Hezkuntzako eskoletan mugitzeko  
mugak dituzten ikasleei erantzuteko.  
9 erantzun




Irakasle gisa, dibertsitate funtzionalarekin lotutako gaietan eguneratzen saiatzen naiz, ikasleei ikasgelan ahalik eta erantzun onena emateko.

9 erantzun




Koordinazio ona dago ikastetxe barruko hezkuntza bereziko irakasle espezialistekin, eta haien laguntza jasotzen dut.

9 erantzun




Hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleei buruzko prestakuntza nahitaez bete behar dute ikastetxe bateko irakasleek.

9 erantzun




Arazoak ditut mugitzeko mugak dituzten ikasleek gelaren erritmo normalari jarraitzeko, nahiz eta beharrezko egokitzapenak egin.

9 erantzun




Gatazka motorren bat duten ikasleekin lan egiteko, Gorputz Hezkuntzaren arloan lan egiten duten irakaseek prestakuntza espezializatua jaso behar dute.

9 erantzun



Dibertsitate funtzionalari buruzko prestakuntza espezifikoa behar da curriculumaren arlo guztietan.


9 erantzun





Gorputz Hezkuntzarekin eta dibertsitate funtzionalarekin lotutako prestakuntza-jardueretara joaten naiz aldizka.


9 erantzun



## Prestakuntza-eskaerak


Prestakuntza espezifikoa behar da gorputz-hezkuntzaren arlorako materialak eta baliabideak sortzeko eta erabiltzeko.

9 erantzun




Urritasun fisiko mota guztietan espezializatutako prestakuntza-ikastaroetan parte hartuko nuke.

9 erantzun




Dibertsitate funtzionala duten ikasleen ikaskuntza ebaluatzeko sistemekin lotutako prestakuntza-jardueretara joango litzateke.

9 erantzun




Dibertsitate funtzionala duten ikasleen bizi-kalitatea hobetzeko egokitutako jarduera fisikoak lantzen dituzten ikastaroetara joango nintzateke.

9 erantzun




Gizarte-trebetasunei buruzko prestakuntza egokia behar da, irakaskuntzan jarduteko.

9 erantzun




Psikomotrizitateko prestakuntza espezializatua behar da

9 erantzun



Jolas herriko eta alternatiboekin lotutako prestakuntza-ikastaroetara joango nintzateke.

9 erantzun



### Iruzkina librea

- Galdetegia egitea zaila eta luzea egin zait. Momentu honetan ez dut mugimendu urritasunik duen ikaslerik (aspaldian beste eskola batzuetan egon nintzenean bai) eta galdera batzuk ez naiz ondo erantzuteko gai sentitu. Beraz ez dakit emandako erantzunak oso baliogarriak izango zaizkizun. Barkatu. Galdera edo bestes zerbaitetan lagundu ahal bazaitut, nire emaila baduzu.
- Askotan GHko espezialistak bakarrik gaude horrelako egoeren aurrean eta ez dugu inoren laguntzarik. Irakasle bakoitzaren konpromiso eta jarrerak markatuko du ikasle horrek izango duen esku hartze maila GHko saioetan. Tamalez horrela da gaur egun...

- Nire kasuan, ez zait egokitu zailtasun motore handia (sakona) duen ikaslerik. Egia da ez dudala formakuntza espezifikorik jaso, momentuan ez dudalako beharrik sentitu baina hala ere, uste dut prestakuntza orokor bat izatea ondo legokeela.
- Klasea prestatzerakoan, argi izan behar dugu zein gatazka motor duen ikasleak eta zein jolas edo ariketa egingo ditugun.
- Eta galdetegian esan bezala, aniztasuna guztiz aberasgarria da klasean, eskola eta bizitzan. Formakuntzak izatea aberasgarria izango litzateke.
- Klase kanpoan zein barruan, irakasle eta espezialisten arteko lan koordinatua beharrezkoa da.
- Askotan nahasten dira integrazioa eta inklusioa.
- Betidanik, horren inguruan ardura izan dut, gustatuko litzaidake formakuntzaren bat jasotzea.
- Prestakuntza falta somatzen dut gai honen inguruan. Gatazka motor hauek oso desberdinak izan daitezke haien artean, horrek espezializazioa zailtzen du.
- Galdera zabal samarra da. Nire esperientzian, gatazka motor horren maila desberdinekin topo egin dut. Unibertsitatean gutxi ukitzen da gai hori, eta egoera horrekin aurkitzen zarenean, zure kabuz pertsona horiengana iristeko modua bilatzea besterik ez zaizu geratzen, gainerako ikaskideengana bezala. Oso interesgarria litzateke nolabaiteko prestakuntza izatea, baita lanean egonda ere. Badirudi ikastetxeetako prestakuntza guztiak ikasgelara bideratuta daudela eta kompetentzia motorra ahaztu egiten dutela.

#### **4. Eranskina: Unitate Didaktikoa**

### **UNITATE DIDAKTIKOA: ULTIMATE FRISBEE**



## **SARRERA/JUSTIFIKAZIOA**

Unitate Didaktiko hau Ultimate frisbeearen inguruan egitea aukeratu dut batez ere gai erakargarria iruditu zaidalako eta aukera anitzak eskaintzen dituelako. Baita ohikotasunetik ateratzen delako eta umeentzat ez denez oso ezaguna, gauza berriak probatzeko aukera eman ahal zaielako. Kirol honetan kontaktu fisiko gutxi izateak ere eragina izan du kirola edo jolasa aukeratzeko orduan.

Unitate hau Gorputz Hezkuntzako ikasgaiari aurrera eramango da 5. mailako ikasleekin. Gimnasioan egitea erabaki da, ikasleak bertan erosoago egongo direla pentsatzen dugulako eta baita material anitz hurbil izateko.

## **IKASLE TALDEAREN EZAUGARRIAK**

Taldea 2 ikasleez osatuta dago, jatorri anitzeko ikasleak dituelarik. Maila sozioekonomiko ertain-baxuko ikasleak dira nagusi klasean eta jarduera fisikoa orokorrean Gorputz Hezkuntzako saioetan egiten dute. 13 mutilak eta 10 neskek osatzen dute, taldekatzeetan genero aldetik nabarmentzen da haien arteko harremana. Orokorrean talde gisa ondo funtzionatzen dute eta nahiko lotuta daudela esan daiteke. Ikasleen artean monopolejia gaixotasuna duen ikasle bat dago, eskuineko hankari eragiten dio. Taldean normaltasunez jarduten da orokorrean baina Gorputz Hezkuntzako saioetan ikasleek ahaztu egiten dute kontu handiz ibili behar direla eta arazoren bat ekarri izan du. Saioetan zehar oso lehiakorak dira, arazoaren jatorritako nagusi bat izanik.

Ikasle taldean monopolejia duen ikasle bat daukagu, eta taldean onartuta dagoen arren, kideek gaixotasuna kontuan hartu behar dute. Lehen Hezkuntzako lehenengo mailatik hona, 5. mailara, ikasle honen gorputzaren eboluzioa eta mugitzeko gaitasuna poliki-poliki narriatuz joan da, hau da, beheranzko eboluzioa izan du. Honek bere taldekideekiko desberdintasuna handitu egin du eta nabariagoa da. Nahiz eta korrika egin dezakeen zailtasun gehiago ditu eta denbora gehiago behar du distantzia batetik bestera joateko.

## **KONPETENTZIAK**

### ***Oinarrizko zehar konpetentziak***

#### 4) Ekimenerako eta espiritu ekintzailerako konpetentzia:

Ekimenez jardutea eta prozesu ekintzailea ausart eta eraginkor kudeatzea da egoera eta testuinguru pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihur daitezten.

- Osagaiak:
  - o b) Planifikatutako ekintzak gauzatzea eta, beharrezkoa baldin bada, haiek doitzea
  - o c) Egindako ekintzak ebaluatzea, haien berri ematea eta hobetzeko proposamenak egitea

### ***Oinarrizko diziplina barneko konpetentzia***

#### 7) Konpetentzia motorra:

Autonomiaz, izaera kritikoz, sormenez eta adierazkortasunez lantzea norberaren, gainerako pertsonen eta ingurune fisiko eta kulturalaren jardun-eremu motorreko egoerak, eta jokabide motorra lantzen laguntzen duten jakintzak, prozedurak eta jarrerak barneratzea, jarduera fisikoa eta kirola egiteko ohiturak hartu eta, bizimodu osasungarri batean oinarrituta, gorputzaren eta norberaren alderdi fisiko eta emozionalen ongizatea lortzen laguntzeko.

- Osagaiak:
  - o a) Jokabide motor autonomorako gaitasun eta trebetasun fisikoak lantzea, eta horretarako, ohikotasunez egitea, banaka nahiz taldean, jarduera fisikoak, ludikoak eta kirola, ongizate pertsonala eta soziala bermatzeko.
  - o d) Eguneroko bizitzan modu kontzientean barneratzea jarduera fisikoaren adierazpen guztiak, osasuna osotasunean zaintzeko eta hobetzeko eta bitzita orekatua izateko osagai ezinbestekoa den aldetik, eta hari lotutako alderdi intrintsekoak eta estrintsekoak identifikatzea.

## HELBURU, EDUKI ETA EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Arloko helburuak	Edukiak	Ebaluazio-irizpideak
<p>2. Trebetasun eta ahalmen fisikoak garatzea, hauren eboluzio-prozesuarekin bat, jolasa erabiliz, oinarrizko baliabide den aldetik.</p> <p>4. Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako jolas-tradizioak, jarduera fisikoen eta kirol-jardueren tradizioak nahiz adierazpen-tradizioak ezagutzea, haien balioak errespetatzeko eta balioesteko, jolas eta adierazpen tradizionalak eta herrikoiak praktikatu.</p>	<p><b>1. MULTZOA. Eduki komunak</b></p> <p>Arlo eta ikasgai guztietan komunak diren oinarrizko zehar-kompetentziekin lotutako edukiak.</p> <p><b>5. MULTZOA. Kultura motorra: aisia eta denbora librerako hezkuntza</b></p> <p>Jolasetan parte hartzea eta kirolak egiten hastea</p> <p>Jolas-arauak ulertzea, onartzea eta betetzea, baita jarrera arduratsua izatea ezarritako estrategiekin.</p>	<p><b>2. Jolasetan eta jarduera motorretan pilotak edo beste higikari batzuk jaurtitzea, pasatzea eta jasotzea, kontrola galdu gabe eta behar bezala egokituz joko-zelaiko egoerari, distantziei eta ibilbideei.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gorputza egoki zuzentzen du harrerak eta geldialdiak egiteko, objektuaren direkzioari erreparatuta.</li> <li>- Objektuen erabilera menderatzen du jolas-egoeretan</li> <li>- Trebetasun motorrak erabiltzen ditu ohiko inguruneetan sortzen zaizkion arazoak konpontzeko</li> <li>- Kirola egiten hasteko oinarrizko trebetasun motorrak eskuratzen ditu</li> </ul> <p><b>6. Norberaren ahalegina eta taldearekin ezartzen diren harremanak identifikatzea jolasen eta kirol-jardueren oinarrizko balio diren aldetik, eta haiekin bat jokatzeko</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ezberdintasun fisiko individualak onartzen ditu kirolean</li> <li>- Generoen arteko desberdintasunek kirol-jardueretan duten eragina gaitzetzeko erak ezagutzen eta erabiltzen ditu.</li> <li>- Joko-arauak ezagutzean eta onartzen ditu</li> </ul> <p>Joko garbia lantzen du jardueretan</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ariketa fisikoa eta kirola egitean sortzen zaizkion egoera gatazkatsuak konpontzen ditu</li> </ul>



## HELBURU ESPEZIFIKOAK

	<b>Helburu didaktikoak</b> ZERTARAKO	<b>Edukiak</b> ZER	<b>Lorpen-adierazleak</b> NOLA
<b>1. Saioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ultimate frisbee-a zer den ezagutzea</li> <li>- Kirolaren oinarrizko arauak zeintzuk diren ezagutzea</li> <li>- Frisbeearekin lehen kontaktua egitea</li> </ul>	<p>Ultimate frisbeearekin lehen kontaktua izatea eta materialaren eta arauen berenganatzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Materiala ezagutu eta menperatzen du</li> <li>- Kirolaren arauak barneratzen ditu</li> </ul>
<b>2. Saioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jaurtiketak landu</li> </ul>	<p>Kirolean oinarrizkoak diren jaurtiketen lanketa</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Materiala ezagutu eta menperatzen du</li> <li>- Kirolaren arauak barneratzen ditu</li> <li>- Kirolaren teknika menperatzen du</li> </ul>
<b>3. Saioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pasea landu (jaurtiketa eta harrera)</li> <li>- Kidearekin komunikazioa</li> <li>- Aurkaritzan lan egiten hastea</li> </ul>	<p>Kirolaren bestelako elementuak sartzea eta bereziki harremanen lanketa egitea, lankidetzan zein aurkaritzan</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kieoletan aniztasuna eta gainontzekoak errespetatuz aritzen da, genero bereizkeriarik egin gabe</li> <li>- Kirolaren teknika menperatzen du</li> <li>- Kirola balioesten du eta harremanak garatzen ditu</li> </ul>
<b>4. Saioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurkariaren presentziarekin jokatzeko ikastea</li> <li>- Ultimateko oinarrizko arauen erabilera egitea</li> </ul>	<p>Kirolaren aurreko arauen finkatzea eta aurkariaren aurrean estrategien sorrera</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kirolaren arauak barneratzen ditu</li> <li>- Kirolaren oinarrizko estrategiak identifikatzen ditu</li> </ul>
<b>5. Saioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Partidu egoera errearen bizipena</li> </ul>	<p>Ultimate frisbeeeko partidu errearen baten simulazioa eta bizipena, arau eta elementuen barneratzearekin txapelketa giro batean</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kirolaren oinarrizko estrategiak identifikatzen ditu</li> <li>- Oinarrizko trebetasun motorrak kontrolatzen ditu</li> </ul>

## **METODOLOGIA**

Hezkuntza-xedeak lortzeko elementu giltzarria da metodologia. Pedagogia-jarduna zehazten duten erabakiak eta estrategiak adierazten ditu, hezkuntza-teorian oinarrituta eta justifikatuta. Espazioen, denboren, proposamenen, materialen, esku-hartzeko estiloen eta beste alderdi askoren gaineko erabakiak planifikatzeko, antolatzeko eta zehazteko aukera ematen digu metodologiak, eta gure heziketa-jarduna zuzentzen du, haurren garapenerako ematen dugun laguntzaren baitan. Bestela esanda, ikasteko prozesua kudeatzeko aukera ematen digu metodologiak, prozesu horretako elementu guztiak kontuan hartuta (Heziberri 2020).

Bi alderdi hartuko dira kontuan: batetik, ikasleek elkarlanean aritu behar izatea elkarrekin ezarritako helburuak lortzeko eta, bestetik, elkarlanean aritu behar izatea, baina bakoitza bere rolean.

Ikasleak paper aktiboa dauka eta irakaslea bigarren maila batean kokatzen da. Ikaskuntza esanguratsua lortzeko ezinbestekoa da haurren inplikazio aktiboa izatea informazioaren bilakuntzan, esperimentazioan, hausnarketan, aplikazioan eta komunikazioan. Irizpide honen helburua ikaslearen autonomia lortzea da.

Hezitzailearen papera, garapen pertsonala eta soziala, arazoaren ebazpena eta inguratzen gaituen munduaren ezagutza eta transformazioa ahalbidetzen duten testuinguruak edo ikaskuntza egoerak diseinatzeko bitartekari, gidatzaile, laguntzaile edo erraztatzaile moduan definitu dezakegu.

Haur guztiak ez dira berdinak, ez dituzte trebezia berdinak, beraz, taldean lan egiteak osatzen laguntzen die, gai izaten egoera konplexuagoak ebazten, Vygostky-ren aldamioren teoriak dioten moduan, haurrak bakarrik ebazten jakingo ez zituzten egoerak ezagutza maila ezberdina duen beste norbaitekin elkarlanean arituz ebazteko gai izatea da.

Saio bakoitzaren bukaeran ikasle eta irakaslea korro batean bilduko dira saioan zehar gertatu denari buruz hitz egiteko. Garrantzitsua da bai sortu diren gatazkak konpontzeko eta baita irakasleak ebaluazioa egiteko. Modu honetan ikasleek saioa positiboki edo negatiboki hartu duten jakiteko, eta gerora begira, akatsak zuzentzeko.


## INSTALAZIOAK ETA MATERIALA



Ultimate frisbee-a lantzeko saioak ingurune egonkor batean egingo dira: gimnasio edo polikiroldegian. Espazioa oso zabala izan behar du, jaurtiketak landuko direlako.

Materialari dagokionez, jarduerak egiteko hauek beharrezkoak izango dira: forma eta tamaina desberdinetako frisbee-ak. Material anitzeko frisbee-ak erabiliko ditugu, batzuk bigunagoak eta beste batzuk zurrunagoak. Bigunak hasieran erabiliko ditugu lehenengo kontaktua errazagoa izateko.



## ULTIMATE FRISBEE SAIO SEKUENTZIA


<i>1. SAIOA</i>	
<i>Helburu espezifikoak</i>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Ultimate frisbee-a zer den ezagutzea</li><li>- Kirolaren oinarriko arauak zeintzuk diren ezagutzea</li><li>- Frisbeearekin lehen kontaktua izatea</li></ul>
<i>Materiala</i>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Material audiobisuala</li><li>- Frisbee-ak</li></ul>
<i>SAIOAN GARATUKO DIREN ARIKETAK</i>	
<i>1. ARIKETA: Zer da ultimate frisbee?</i>	
<i>Materiala</i>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Material audiobisuala</li><li>- Arauen fitxa</li></ul>
<i>Iraupena</i>	20 minutu

<b>Deskribapena</b>	<p>“Ultimate frisbee”-aren unitate didaktikoarekin hasteko, saioko hasierako ordu laurdena ikasgelan igaroko dugu, kirol berri honen inguruko beharrezkoa den informazioa ikasleei plazaratzeko.</p> <p>Lehenik eta behin ikasleei galdetuko diegu ea zerbait dakiten edo noizbait entzun duten. Geroago, bideo baten bitartez ultimate frisbeea zer den azalduko du.</p> <p>Ondoren, talde bakoitzari oinarrizko araudi fitxa bat banatuko dio, eta talde bakoitzaren egin beharra izango da hori irakurri eta arauak ulertzen ahalegintzea.</p> <p>Amaitzeko, ikasgela osoaren artean arau horien azalpena emango da, irakasleak beharrezkoa den informazioa gehitzearekin batera.</p>
<b>2. ARIKETA: Materiala ezagutzen</b>	
<b>Materiala</b>	- Frisbee-ak
<b>Iraupena</b>	5 minutu
<b>Deskribapena</b>	Honako egoera hau egoera psikomotor bat da, helburu gisa frisbee-arekin lehen familiarizazioa egitea dena. Honetarako, ikasle bakoitzak frisbee bat edukiko du eta haien egin beharra honekin esperimendatzea izango da (jaurtiketa luzeak nahiz motzak egin, jaurtiketa eta harrera egiten saiatu) norberak bere erritmoa eta zailtasun maila markatuko du.
<b>Irudia</b>	
<b>Ariketaren aldaera posibleak</b>	- Nahi izanez gero irakasleak esperimendazio hau gidatu dezake egin behar desberdinak proposatuz (pase motzak egin, pase luzeak egin, jaurtiketa egiteko eskua aldatu, frisbee-a bizkar atzetik jaurti... eta abar)
<b>3. ARIKETA: Paseekin esperimendatzen</b>	
<b>Materiala</b>	- Frisbee-ak
<b>Iraupena</b>	15 minutu
<b>Deskribapena</b>	Egoera soziomotor honen helburua paseak lantzen hastea izango da. Horretarako, ikasleak bikoteka jarriko dira frisbee bakar batekin, eta

	<p>hasiera batean nahi duten moduko paseak egiten hasiko dira, jaurtiketak ez direla azpimarratuko dugu, pase horien harrera egiten ahalegintzea garrantzitsua dela nabarmenduz.</p> <p>Ondoren, saioaren hasieran aipatutako arau bat txertatuko diogu ariketa honi:  “Frisbee jaurtitzaila ezin da lekutik mugitu”.</p> <p>Arau hori kontuan hartuz, paseak egiten jarraituko dugu</p>
<b>Irudia</b>	
<b>Ariketaren aldaera posibleak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Paseak dominatzen dituzten ikasleak ikusi ezker, frisbee paseak egiteko dauden hiru aukerak zeintzuk diren azaldu ditzakegu. Horiekin ere esperimentatu dezaten.</li> </ul>
<b>4. ARIKETA: Itsasoa zeharkatzen</b>	
<b>Materiala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Frisbee-ak</li> </ul>
<b>Iraupena</b>	10 minutu
<b>Deskribapena</b>	<p>Ariketa honen helburua orain arte landutako arauak erabiliz frisbeeak irakasleak zehaztutako distantzia bat zeharkatzea izango da.</p> <p>Horretarako, taldekatze txikiak sortuko ditugu, eta egin beharra frisbeea hasiera puntutik amaiera puntura eramatea izango da. Hori egiteko, ordea, baldintza desberdinak egongo dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ahalik eta pase gutxien egiten ahaleginduko gara</li> <li>- Frisbeea duen pertsonak ezingo du tokitik mugitu.</li> </ul>
<b>Irudia</b>	
<b>Ariketaren aldaera posibleak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Espazioaren tamaina handitzea</li> <li>- Frisbee kopuru handiagoa jartzea</li> <li>- Bidean oztopoak jartzea</li> </ul>

<i>ELKARTZE UNEA</i>	
<b>Denbora</b>	5 minutu
<p>Korroan eseriko gara eta gertatutakoari buruz hitz egingo dugu.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Nola sentitu zarete?</li> <li>- Zer gustatu zaizue gehien? Eta gutxien?</li> </ul>	
<i>SAIOAREN EGOKITZAPENA</i>	
<p>Monoplejiaren egokitzapenari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 3 ariketan ikasle honekin osatutako bikoteak ingurukoak kontuan hartu eta beste kideekiko distantzia bat mantentzea, ez asko, nahikoa talka egiteko arriskua murrizteko.</li> <li>- 4 ariketan, ikasle honi korrika egiteko distantzia txikiena jarri.</li> </ul>	
<b>2. SAIOA</b>	
<b>Helburu espezifikoak</b>	- Jaurtiketak lantzea
<b>Materiala</b>	- Frisbee-ak - Txinoak
<i>SAIOAN GARATUKO DIREN ARIKETAK</i>	
<b>1. ARIKETA: Etxea garbitzen</b>	
<b>Materiala</b>	- Frisbee-ak - Zelaia mugatzeko txinoak
<b>Iraupena</b>	15 minutu
<b>Deskribapena</b>	<p>Ariketa honen helburu nagusia frisbee bidezko jaurtiketa lantzea izango da. Honetarako, bi talde sortuko ditugu, eta bi zelai dituen eremu batean jokatu da.</p> <p>Talde bakoitza zelai batean kokatuko da, eta frisbee desberdinak egongo dira jokoan.</p> <p>Irakasleak partidaren denbora zehaztuko du, eta ikasleen helburua, denbora amaitzen den unean norbere etxean ahalik eta frisbee gutxien edukitzea izango da.</p>

<p><b>Irudia</b></p>	
<p><b>Ariketaren aldaera posibleak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kolore desberdinetako frisbeeak eduki ezker, kolore bakoitzari puntuazio desberdin bat eman diezaiokegu. Modu horretan, frisbee bakoitzak balio desberdin bat edukiko du, eta ikasleek jaurtiketak egiten dituzten unea hori aintzat hartu beharko dute.</li> </ul>
<p><b>2. ARIKETA: Sare gaineko paseak</b></p>	
<p><b>Materiala</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Frisbee-ak</li> <li>- Sarea</li> </ul>
<p><b>Iraupena</b></p>	<p>15 minutu</p>
<p><b>Deskribapena</b></p>	<p>Ariketa hau aurrera eramateko ikasleak bikoteka antolatuko dira, bikote bakoitzak frisbee bat edukiko duelarik. Zelaiaren erdian sare bat egongo da kokaturik. Ikasleen helburua, bikotekide bakoitza sarearen alde bakoitzean jarriz, paseak egitea izango da. Modu honetan, frisbeeari altuera desberdina ematen ikasiko dute.</p> <p>Erronka gisa pase kopuru bat zehaztu daiteke, esaterako 15 pase. Ikasleen helburua 15 pase horiek frisbee lurrera erori gabe egitea izango da. Erori ezker, Otik hasi beharko dira zenbatzen.</p> <p>Bikoteka egin ostean, erronka berdina 4koteka egingo dugu.</p>
<p><b>Irudia</b></p>	
<p><b>Ariketaren aldaera posibleak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bikoteka beharrean laukoteka egin daiteke. Sarearen alde bakoitzean bi kide kokatuz</li> <li>- Ikasleek jarraitu beharreko sekuentzia bat pentsatu dezakete erronka planteatzeko garaian. Adibidez, frisbia bi aldiz goitik jaurti, eta ondoren bi aldiz. Edota paseak</li> </ul>

	<p>orden zehatz batean egin beti.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erdian sare bat kokatu beharrean, aurkari bat kokatu dezakegu, haren helburua frisbeea berreskuratzea izango delarik. Berreskuratu ostean, jaurtiketa txarra egin duenarekin rol aldaketa egingo litzateke</li> </ul>
<b>3. ARIKETA: Altxorraren bila</b>	
<b>Materiala</b>	- Frisbee-ak
<b>Iraupena</b>	20 minutu
<b>Deskribapena</b>	<p>Joko hau gauzatzeko ikastaldea bi taldetan banatuko dugu. Joko eremua lau zelaitan banatuko da, bi zelai nagusiak, eta zelai nagusien atzeko aldean kokatuko diren zelai estuago batzuk, biltegi gunea izango direnak.</p> <p>Jolasaren hasieran talde bakoitzak frisbee kopuru berdina izango du haren biltegian, eta haien helburua, aurkariaren biltegian dauden frisbee guztiak haien biltegiara ekartzea lortzea izango da.</p> <p>Jokalari bat ezingo da haren zelai eremuan harrapatua izan, aurkariaren zelaian sartzen den unean, ordea, harrapatua izateko arriskua edukiko du. Harrapatua izan ezkerro harri bihurtuko da harrapatua izan den tokian, eta berriro ere jokoan jarraitzeko kide batek bostekoa eman beharko dio.</p>
<b>Irudia</b>	
<b>Ariketaren aldaera posibleak</b>	Harrapatua izandako unean, aurkariaren zelaian harri bihurtu beharrean, zelaian alde batean kate bat sortzea. Libratzeko, kide batek kateko azkeneko pertsonari bostekoa eman beharko dio.
<b>ELKARTZE UNEA</b>	
<b>Denbora</b>	5 minutu



Korroan eseriko gara eta gertatutakoari buruz hitz egingo dugu.

- Nola sentitu zarete?
- Zer gustatu zaizue gehien? Eta gutxien?

### *SAIOAREN EGOKITZAPENA*

Monoplejiaren egokitzapenari dagokionez:

- 3 ariketan harrapatua izan daitekeen zelaian sartzean, uztai bat izango du eta harrapatzaileek uztaiak ukitu beharko dute harrapatzeko.

### **3. SAIOA**

***Helburu  
espezifikoak***

- Pasea landu (jaurtiketa eta harrera)
- Kidearekin komunikazioa
- Aurkariaren presentziarekin lan egiten ikastea

***Materiala***

- Frisbee-ak
- Koloretako petoak

### *SAIOAN GARATUKO DIREN ARIKETAK*

#### ***1. ARIKETA: Rondo, 5 vs 1***

***Materiala***

- Talde bakoitzeko frisbee bana

***Iraupena***


15 minutu



***Deskribapena***

Ariketa honen helburu nagusia paseak lantzea izango da, jaurtiketak eta harrera, alegia. Horretarako 6 pertsonako taldeak sortuko ditugu. 5 pertsonak erasotzaile lana egingo dute, pertsona bakar batek defentsa lana egingo duen delarik.


Erasotzaileen helburua, aurreko saiotan landutako arauak aintzat hartuz (frisbeea duenak ezin du mugitu) paseak egitea izango da. Defentsaren lana berriz, frisbeea berreskuratzea izango da, pase bat moztuz.



Defentsak frisbeea berreskuratzen duen unean, roll aldaketa emango da: pase txarra egin duenak defentsa lana egingo du, bestea erasotzaile bihurtuko delarik.

<b>Irudia</b>	
<b>Ariketaren aldaera posibleak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jokoan frisbee gehiago sartu</li> <li>- Defentsari frisbee-a lortzeko aukera gehiago eskaintzea: frisbee-a eskutan duen pertsona ukitu ezker, frisbee-a lortzea, adibidez.</li> </ul>
<b>2. ARIKETA: 10 paseen jolasaren progresioa</b>	
<b>Materiala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Frisbee-a</li> <li>- Petoak</li> </ul>
<b>Iraupena</b>	15 minutu
<b>Deskribapena</b>	<p>Ariketa honekin hasteko ikastaldea bi taldetan banatuko dugu, paraleloki lan egingo dutelarik.</p> <p>Ariketa honekin hasteko unean araudia gogoratuko dugu, ariketa honetan oinarritzko zenbait arau errespetatu beharko baitira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Frisbee-a duen jokalaria ezin da mugitu</li> <li>- Defentsak ezin du frisbee-a duen aurkaria ukitu</li> </ul> <p>Ariketa honen helburua pasea eta harrera lantzea izango da. Horretarako taldeak progresiboki “erronka” txikiak gaintzen joan beharko da.</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Hasteko, taldearen helburua haien artean adosten dituzten pase kopurua frisbee-ak lurra ukitu gabe egitea izango da.</li> <li>2. Hori lortzen duten unean, taldekide bat aurkari bihurtuko da, eta erasotzaileen lana berdina izango da.</li> <li>3. Erronka hori gaintitzean, beste aurkari bat sartuko da jokoan, eta helburua berdina izaten jarraituko du.</li> <li>4. Erronka gaintitu ahala, defentsa gehiago sartuko dira, erasotzaile eta defentsen kopurua berdina izan arte.</li> </ol> <p>Une horretan, 10 paseen ohiko jolasa egiteko prest egongo ginateke.</p>



<p><b>Irudia</b></p>	
<p><b>Ariketaren aldaera posibleak</b></p>	<p>Jolasean daudenean, jokoaren mailaren araberako arauak gehitu daitezke pixkanaka, adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ezin zaio pasa dizun pertsonari berriro pasa</li> <li>- Erronka lortzeko taldekide guztiek frisbee-a ukitu behar dute</li> </ul>
<p><b>3. ARIKETA: Mini ultimate</b></p>	
<p><b>Materiala</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Frisbee-ak</li> <li>- Petoak</li> </ul>
<p><b>Iraupena</b></p>	<p>20 minutu</p>
<p><b>Deskribapena</b></p>	<p>Ariketa honen bitartez orain arte landutakoa globaltasun batean martxan jartzeko, partidu egoera batzuk planteatuko ditugu. Partidutxo hauek aurrera eramateko sortuko ditugun taldeak, ordea, kopuru oso txikikoak izango dira, 4-5 kideko taldeak zehazki. Modu honetan, ikasle guztien parte hartzea bermatu nahi dugu</p>
<p><b>Irudia</b></p>	
<p><b>Ariketaren aldaera posibleak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasleen joko mailaren arabera, espazioaren tamainarekin jokatu daiteke</li> </ul>
<p><b>ELKARTZE UNEA</b></p>	

<b>Denbora</b>	5 minutu
<p>Korroan eseriko gara eta gertatutakoari buruz hitz egingo dugu.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Nola sentitu zarete?</li> <li>- Zer gustatu zaizue gehien? Eta gutxien?</li> </ul>	
<i>SAIOAREN EGOKITZAPENA</i>	
<p>Monoplejiaren egokitzapenari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 2 ariketa hasi baino lehen, ikasle guztiek puxika bat izango dute. Puxikak hankan edo besoan eramango dituzte. Helburua ariketa bukatzerakoan puxika oraindik izatea izango da, jarri duten tokiarekin kontuz ibiltzeko eta monoplejiadun ikaslearekin pixka bat enpatia izateko.</li> <li>- Puxika gehienak osorik jarraitzen badute, egokitzapena 3 ariketara ere luzatu daiteke.</li> </ul>	
<b>4. SAIOA</b>	
<b>Helburu espezifikoak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurkariaren presentziarekin jolasten ikastea</li> <li>- Ultimateko oinarrizko arauen erabilera egitea</li> </ul>
<b>Materiala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Frisbee-ak</li> <li>- Petoak</li> <li>- Konoak/txinoak</li> </ul>
<i>SAIOAN GARATUKO DIREN ARIKETAK</i>	
<b>1. ARIKETA: 10 paseen jolasa</b>	
<b>Materiala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Frisbee-ak</li> <li>- Petoak</li> </ul>
<b>Iraupena</b>	15 minutu
<b>Deskribapena</b>	<p>Bi talderen aurkaritzan oinarrizten den ariketa da honako hau. Horretarako, 4 talde egingo ditugu, eta modu paraleloan jardungo gara jolasean.</p> <p>Espazio zabal baino mugatu batean jokatuko dugu. Erasotzaileen helburua frisbeea lurrera erori gabe 10 pase egitea izango da, betiere ultimateko araudia errespetatuz.</p> <p>Noiz gertatzen da posesio aldaketa?</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Talde batek 10 paseak egitea lortu duenean</li> <li>- Aurkari batek pase bat moztu eta frisbeea bereganatzen</li> </ul>

	<p>duenean.</p> <p>Kasu honetan, erasotzaileei frisbeea lurrera erori ezker, lurretik diska lehenengo jasotzen duen pertsonarentzat izango da frisbeea. Erasotzen ari zirenek hartu ezker, 0 tik hasi beharko dira zenbatzen berriro ere.</p>
<b>Irudia</b>	
<b>Ariketaren aldaera posibleak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Joko mailaren arabera pase kopurua handitu daiteke</li> <li>- Espazioa txikitu nahiz handitu daiteke</li> <li>- Frisbee-a lurrera erori ezker, posesio aldaketa izango denaren araua gehitu</li> </ul>
<b>2. ARIKETA: 3 eremuen ariketa</b>	
<b>Materiala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Frisbee-ak</li> <li>- Petoak</li> <li>- Txinoak</li> </ul>
<b>Iraupena</b>	15 minutu
<b>Deskribapena</b>	<p>Bi talderen aurkaritzan oinarritzen da ariketa hau. Horretarako ikasleak 4 taldetan banatuko ditugu eta paraleloki ibiliko dira lanean.</p> <p>Zelaia hiru eremuetan banatuko da. Jolasa hasten den unean, talde erasotzailea alboko eremu batean kokatu beharko da (eskuinekoan esaterako), defentsariak erdiko zelaian kokatuko direlarik.</p> <p>Erasotzaileen helburua, eskuineko zelai horretan 4 pase egitea izango da. Une horretatik aurrera, hurrengo pasea alboko beste zelaira egin beharko dute, ezkerreko zelaira, kasu honetan. Horretarako, talde erasotzaileko zenbait kidek zelai aldaketa egin beharko dute, pase luzearen harrera beste zelaian egin ahal izateko. Pasea hartu ezker, dinamika berdina jarraituko dute: dauden zelaian 4 pase motz egin eta 5.pasea (luzea) aurkako zelaian jaso.</p> <p style="text-align: center;">Defentsen lana frisbee-a berreskuratzea izango da. Nola, ordea?</p> <p>Hasierako unean defentsariak erdiguneko zelaian kokatuko dira. Frisbee-a martxan jartzen den unean, 3 erasotzailek alboko joko</p>

	<p>zelaira sartu beharko dira diskoa berreskuratzen ahalegintzeko. Erasotzaileek pase luzea egiten duten unean, ordea, beste 3 defentsa izango dira (ordura arte erdian zeudenak) joko zelai berrira defentsa lanak egitera sartuko direnak.</p> <p>Alboetako zelaitan sartzen diren defentsek pase motz horiek mozten ahalegindu beharko dira, erdiguneko zelaian gelditzen direnek, pase luzeak mozten ahalegindu beharko diren heinean.</p>
<b>Irudia</b>	
<b>3. ARIKETA: Partidutxoak</b>	
<b>Materiala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Frisbee-ak</li> <li>- Petoak</li> <li>- Konoak</li> </ul>
<b>Iraupena</b>	15 minutu
<b>Deskribapena</b>	<p>Saioari amaiera emateko taldea 3 talde txikitan banatuko dugu.</p> <p>5 minutuko partida laburrak egingo ditugu. Bi taldek partida jokatzen duten bitartean, kanpoan dagoen taldeak adi egon beharko du, arauak errespetatzen dituzten ala ez ikusteko. Horretarako, kanpoko taldeko bi ikasle epaile lanak egiteko eskatu diezaiokegu.</p> <p>Partida amaitzean, talde irabazleak zelaian jarraituko du, kanpoko taldea jokora sartuko da eta talde galtzaileak epaile lana egingo du.</p>
<b>Irudia</b>	
<b>Ariketaren aldaera posibleak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Taldekide kopurua txikitu nahiz handitu egin daiteke</li> <li>- Puntua lortzeko pase kopuru bat zehaztu daiteke</li> </ul>
<b>ELKARTZE UNEA</b>	

<b>Denbora</b>	5 minutu
<p>Korroan eseriko gara eta gertatutakoari buruz hitz egingo dugu.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Nola sentitu zarete?</li> <li>- Zer gustatu zaizue gehien? Eta gutxien?</li> </ul>	
<i>SAIOAREN EGOKITZAPENA</i>	
<p>Monoplejiaren egokitzenari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 2 ariketan, zelai aldaketa egin behar denean, ikasle hau aldatu beharko ez dena izaten saiatuko gara. 3 erasotzaile diskoa berreskuratzera beste zelaira sartu behar direnean, eta zelai hori monoplejia duen ikaslearen zelaia bada uztai batzuk egongo dira lurlean eta ikasle horrentzat soilik, uztailak etxeak izango dira.</li> </ul>	
<b>5. SAIOA: ULTIMATE TXAPELKETA</b>	
<b>Helburu espezifikak</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Partidu egoera errearen bizipena</li> </ul>
<b>Materiala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Frisbee-ak</li> <li>- Petoak</li> <li>- Txinoak</li> <li>- Txifloa</li> </ul>
<i>SAIOAN GARATUKO DIREN ARIKETAK</i>	
<b>1. ARIKETA: Azeria, sugea eta oiloa</b>	
<b>Materiala</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Petoak</li> <li>- Konoak</li> </ul>
<b>Iraupena</b>	10 minutu
<b>Deskribapena</b>	<p>Taldea hiru taldetan banatuko da eta bakoitzak rol bat izango du. Azeriek oiloak harrapatu beharko dituzte, oiloak sugea eta sugeak azeria. Taldeek animaliak identifikatu ahal izateko kolore desberdin bateko zapia izango dute. Talde bakoitzak etxe bat izango du eta bertan ezin izango dira harrapatuak izan. Harrapatua izanez gero, harrapatzailearen etxera eraman eta bertan kate bat osatuko dute, taldekideren baten ukitu eta libratzea lortu arte.</p>

<p><b>Irudia</b></p>	
<p><b>2. ARIKETA: Txapelketa</b></p>	
<p><b>Materiala</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Frisbee-ak</li> <li>- Petoak</li> <li>- Txifloa</li> </ul>
<p><b>Iraupena</b></p>	<p>40 minutu</p>
<p><b>Deskribapena</b></p>	<p>Unitate didaktikoari amaiera emateko ultimateko txapelketa txiki bat antolatuko dugu, zeinetan ikasleek ultimate errearen egoera bizitzeko aukera edukiko duten.</p> <p>Eskolak espazio aldetik aukera eduki ezker, berde gune batera irten gintezke, espazio aldaketa bat egin eta hurren motibazioa are gehiago areagotzeko.</p> <p>Txapelketa hau garatzeko, taldetxoak sortuko ditugu, eta 10 minutuko partidak izango dira jokatuko direnak. Klasifikazio bat sortuko dugu, eta kartulina handi batean jaso, bisuala izan dadin.</p> <p>Helburua parte hartzea izango da, horregatik, irabazi nahiz galdu, partidu kopuruak berdinak izango dira.</p>
<p><b>Irudia</b></p>	
<p><b>Ariketaren aldaera posibleak</b></p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aukera eduki ezker, txapelketa hau maila bereko beste klaseekin aurrera eramatea aukera aparta izango</li> </ul>



	litzateke.
<i>ELKARTZEKO UNEA</i>	
<b>Denbora</b>	5 minutu
<p>Korroan eseriko gara eta gertatutakoari buruz hitz egingo dugu.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Nola sentitu zarete?</li> <li>- Zer gustatu zaizue gehien? Eta gutxien?</li> </ul>	
<i>SAIOAREN EGOKITZAPENA</i>	
<p>Monoplejiaren egokitzapenari dagokionez:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- 1 ariketan, taldekide bat laguntzaile bezala izango da harrapatzaileak saihesteko, eta erabateko kontaktua ekiditeko</li> </ul>	

## **EBALUAZIOA**

Ebaluaketa jarraia izango da. Honek esan nahi du unitatearen hasieran, prozesuaren erdian eta bukaeran egingo dela. Hasierako ebaluazioa aurretiko ezagutzak baloratzea izango da. Ikasleek gaiaren inguruan dakitena eta ez dakitena aztertzeko. Prozesuak pisu gehien izango duen atala da. Azken produktua baino gehiago, garrantzi gehiago emango zaio umeen interes eta parte-hartze mailari. Azken produktua kasu honetan antzezpen bat izango da. Bertan aurretik egindako lana ebaluatuko da eta besteen aurrean antzezteko gaitasuna ere kontuan hartuko da.

Heteroebaluazioa eta autoebaluazioa emango dira, hau da, ebaluazioa gehienbat irakasleak egingo du hiru fasetan, baina ikasleek egunero haien jarrera autoebaluateko aukera izango dute korroan elkartzen direnean. Hasierako ebaluazioaren helburua gure ikasleak zein jakintza puntutik hasiko diren jakitea da. Jasotzen den informazioarekin gure saioak ikasleen beharrei hobeto moldatzeko aukera izango dugu. Prozesuaren ebaluazioa ezinbestekoa da umeak kontzeptuak eta teknikak barneratzen dituzten jakiteko. Baina ez bakarrik hori, besteekin talde-lanean eta harremanetan nola jarduten duten ebaluatzeko ere. Azken ebaluazioa bai irakaslearen aldetik eta bai ikasleen aldetik ematea garrantzitsua da. Modu honetan ikuspuntu desberdinak izango dituzte. Irakaslearen ebaluazioa sakonagoa izango da eta ezaugarri gehiago hartuko ditu kontuan.

Ikasleena agian orokorragoa izango da, baina berdinen arteko ikaskuntza sustatzeko aukera ona da.

Ikasleak ebaluatzeko honako errubrika hau erabiliko da:

<b>EBALUAZIO IRIZPIDEAK</b>	<b>HOBETU BEHAR DU</b>	<b>BIDEAN DAGO</b>	<b>OSO ONDO</b>
Materiala ezagutu eta menperatzen du.	Materiala ez du ezagutzen eta ez du menperatzen.	Materiala ezagutzen du baina ez du menperatzen.	Materiala ezagutzen du eta menperatzen du
Kirolaren arauak barneratzen ditu.	Kirolaren arauak ez ditu ulertzen	Kirolaren arauak ulertzen ditu baina ez ditu errespetatzen	Kirolaren arauak ulertu eta barneratuta ditu
Kirolaren teknika menperatzen du.	Kirolaren teknika ez du menperatzen	Kirolaren teknika batzuetan menperatzen du edo menperatzen hasi da.	Kirolaren teknika ondo menperatzen du.
Kirolaren oinarritzko estrategiak identifikatzen ditu.	Ez ditu kirolaren oinarritzko estrategiak identifikatzen.	Kirolaren oinarritzko estrategia batzuk identifikatzen ditu.	Kirolaren oinarritzko estrategiak identifikatzen ditu.
Kirolean aniztasuna eta gainontzekoak errespetatuz eritzen da, genero bereizkeriarik egin gabe.	Kirolean aniztasuna eta gainontzekoak errespetatu gabe aritzen da.	Kirola praktikatzerakoan aniztasuna eta gainontzekoak normalean errespetatzen ditu.	Kirolean aniztasuna eta gainontzekoak errespetatuz aritzen da.
Kirola balioesten du eta harremanak garatzen ditu.	Ez du kirola balioesten eta ez du inolako harremanik garatzen.	Kirola balioesten du eta harreman gutxi batzuk garatzen ditu.	Kirola balioesten du eta harremanak garatzen ditu.
Oinarritzko trebetasun motorrak kontrolatzen ditu.	Ez ditu oinarritzko trebetasun motorrak kontrolatzen.	Oinarritzko trebetasun motorrak egoera gehienetan kontrolatzen ditu.	Oinarritzko trebetasun motorrak erabat kontrolatzen ditu.

Bestalde, ebaluazio orri bat ere erabiliko da ikasleen jarreraren segimendua egiteko:

Bete ebaluazio orri hau 1 etik 5era markatuz (1 = bat ere ez, 2 = gutxi, 3 = batzuetan, 4 = askotan, 5 = beti)

**BEHAKETA FITXA – JARRERAK**

IKASLEAREN IZENA:	1	2	3	4	5
Beste kideen jarrera onartzen du					
Bere kideekin lankidetzan aritzen da					
Bere gaitasunak hobetzeko jarrera erakusten du					
Saioetako arauak onartu eta betetzen ditu					
Bere kideei laguntzen die					
Materiala zaintzen du					
Klaseko antolakuntzan laguntzen du					
Irakaslearen erabakiak onartzen ditu					
Bere buruarengan konfiantza erakusten du					
Saioetan aktiboki parte-hartzen du					